

Herririk Herri | 2

Pneumologia kongresua burutuko dute gaur Durangoko Gran Hotelean



Berbaz | 8

S. Serrano: "Kontzertu Ekonomikoa ez da behar beste ezagutu eta baloratzen"

Kultura | 12

Durango bizi den Carla Fernández mexikarragaz, dantza garaikideari buruz

KIROLA | 15

Igor Urien auto gidaria ziztu bizian gailurrerantz

16 urteaz, Prototipoen Espainiako Opena irabazi berri du Igor Urien abadiñarrak

Datorren urtean Europako txapelketetan parte hartzeko eskaintzak aztertzen dabil



Joan zen asteburuan Nafarroako Zirkuituan podiumeko koskarik gorenean ospatu zuen txapelketa. Kepa Aginako

DURANGALDEA | 4

Gerediagak Lauxeta Saria jasoko du

Abenduaren 1ean Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak Foru Jauregian emango die saria.



GEHIGARRIA



Berriz | 2

Bigarren eskuko liburu eta disko azoka abenduaren 3an

Mallabia | 3

Abesbatzek kontzertua eskainiko dute Gaztainerre Egunean

Mañaria | 6

Herrian zebra-bide berri bi ipintzeko eskatu dute Aldundian

Celeste Jantziak

- Egunean bertan konpontzen ditugu azpiak, gerrialeak, kremalerak, botolak...
- Giortinak eta etxeko arropak...

Askatasun etorbidea 10 behea
48200 Durango
Tel: 94 407 17 23
confeccionescelste@hotmail.es

*** hezi. 1. Zuzendu, bideratu, irakatsi. 2. Haurren edo gaztearen gaitasun intelektualak eta moralak garatu edo perfektionatu arau, adibide eta abarren bidez**

Zure seme-alaben heziketak* arduratzen zaitu?

zatoz eta ikusiko duzu zertarako gai zaren

elespejodelcoaching.es

OIZ 6 DURANGO 946 03 06 74

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Euskadi eta Nafarroako Arnas Patologia Elkartek (ENAPE) XXIV. Pneumologia Kongresua antolatu du, barikuan egun osoan zehar, Durangoko Gran Hotelean. Bertan pneumologia eta kirurgia torazikoan espezializatu dauden medikuek eta erizainek hainbat gairen gainean eztabaidatu dute. Aurten, edozelan ere, bada berrikuntza bat; arlo zientifikoaz gainera, ikuspegi soziala ere landu dute: "Especialisten eta gizartearen arteko zubia eraikitzea sustatu gura dugu; herritarren iritzia jaso. Arnas aparatuko gaixotasuna dutenen ikuspuntua jasotzea garrantzitsua da, alderdi emozionalaren kudeaketa zelan hobetu daitekeen jakiteko", azaldu du Mikel Oribe kongresuko antolatzaileetako batek.

Aurten, arlo zeintifikoaz gainera, gizarte ikuspegia ere landuko dutela azaldu dute

Bide horretan, lehenengo batzarrera Albert Espinosa gidolari-idazle ezaguna gonbidatu dute. Espinosak arnas aparatuko gaixotasuna izan du, eta horixe da berarengandik jaso gura izan duten ikuspegia: *Nola sentitzen da gaixoa? Zelakoak dira bere atsekabeak, estutasunak, larrialdiak?*

Bigarren mahaikoa da barikuan gairik deigarriena: *Biomasaren*

Arnasketako gaitzen inguruan eztabaidatu dute hainbat adituk kongresuan bilduta

Pneumologiaren arloko medikuak eta erizainak Gran Hotelean batu dira



Pneumologia adituak eta Durangoko alkatea batu ziren Gran Hoteleko aurkezpen ekitaldian.

errekuntza eta biriketako gaixotasun buxatzailea. Bartzelonako Hospital del Mar-eko mediku Mauricio Orozco-Levi izan dute hizlari espezialistek, eta zurak sortutako kea arnasten dutenek arnas aparatuko gaixotasuna garatzeko

duten arriskuari buruz jardun du. Hirugarren mahaiko gaia *Erradiazioa* izango da. Izan ere, medikuek gaixotasuna identifikatzeko erabiltzen dituzten teknologiek ondorioak dituzte; toraxeko plakak egitea, esaterako. Hain zuzen

ere, erradiazio naturalaren ondoren, erradiazioa eragiten duen bigarren iturburua dira, eta horregatik landuko dute gaia. Zaragozako unibertsitateko katedraduna den Miguel Angel de Gregorio izan da hizlaria. ■ J.Derteano.

Etxebizitza, kaleratze eta hipotekei buruz berbaldia gaur

M15 Durangaldea mugimenduak antolatuta, etxebizitzetako hipotekei aurre egiteko dauden zailtasunak azaldu eta horien aurrean bankuek duten jarrera salatzeke mahai-ingurua antolatu dute gaur, 18:30ean, Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko ekitaldi aretoan.

Jaurilaritzako etxebizitza alorreko sailburuorde ohi Javier Burón dator, esaterako

Gai horiei buruz berba egiteko, etxebizitzaren inguruko gaietan adituak diren hiru hizlari gonbidatu dituzte: Hipotekak Kalte Egindakoen Plataformako kide Marta Uriarte, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza sailburuorde ohi Javier Burón eta ADICAE kontsumitzaileen elkartearen Lucía Fernández.

M15 Durangaldea mugimenduko kideen ustez, bankuek euren politikan "ez dituzte kontuan hartu ez milioka pertsonari kalte egiten dien krisia ez lan-gabezia". ■ J.D.

Erronka berriak azalduko ditu Euskal Herrian Euskarazek

Durangoko Euskal Herrian Euskarazek herritarrei begirako aurkezpena egingo du azaroaren 25eko barikuan, 19:00etan, Pinondo etxean. Orain arte egindako ibilbidea aztertzeaz gainera, etorkizunerako dituzten erronka garrantzitsuak plazaratuko dituzte. Durangon 15 urtetik gora daramatza Euskal Herrian Euskarazek eta beste helburu batzuen artean euskaltzaleen parte-hartzea bultzatu gura dute.

EHEk herritarrei begirako aurkezpena egingo du 25ean, 19:00etan, Pinondo Etxean

Joan zen asteburuan EHEko hainbat kide kalejiran batu ziren trikitilarien musikak lagunduta. Herritarrak ekimenaren inguruan informatzeko esku-orriak banatu zituzten eta ondoren mural txiki bi ere margoztu zituzten Durangoko alde-zaharrean. Ondoren, luntx bat ere prestatu zuten bertaratu zirenentzako. ■ J.D.

Zentro Zibikoak beste atzerapen bat jasan duela salatu du PSEk

PSEk salatu duenez, gobernu taldeak "beste urte bitan atzeratu" du San Faustoko zentro zibikoa eraikitzea. EAJk azaroaren 9ko batzordean jakinarazi omen zuen atzerapena, eta bitartean "lur zati hartan belarra ereitea eta hesiz ixtea edo aparakeku bat egitea" proposatu du. Horiek horrela, zentro zibikoaren proiektua gutxienez zortzi urteko atzerapenaz hasiko dela salatu du Pilar Rios zinegotziak.

Sozialisten ustez, atzerapen hori gobernu taldeak errekursoak "ez dituelako ondo kudeatu" eman da: "2004an Eusko Jaurilaritzak 941.441 euroko diru-laguntza jaso zuen zentro zibikoa eraikitzeko Izartu programaren barruan. Diru hori beste obra batzuen gainkostuak ordaintzeko erabaki da". ■ J.D.

"2004an lortutako ia milioi bat euroko laguntza beste obra batzuen gainkostuak ordaintzeko erabili dute"

BERRIZ

Bigarren eskuko liburu eta disko azoka, abenduaren 3an

Euskarazko liburu eta diskoak lortu ahalko dira; azaroan zehar jasoko dituzte dohaintza bidez

Berrizko Udalak euskarazko bigarren liburu eta disko azoka antolatuko du abenduaren 3an, Euskararen Egunean, hain zuzen ere. Azokarako materiala biltzeko, datozen egunetan udaletxean, Institutuan eta Gaztelekuan entregatu ahal izango dira liburu zein diskoak.

Bigarren eskuko produktu bat erosten duenak truke-bonoa jasoko du, azoka egunean beste bat bueltan hartzeko

Udalak dohaintza horretan parte hartzeko gonbita egin die herritarrei. Gainera, bigarren eskuko produktu bat erosten duenak truke-bonoa jasoko du, eta bono horregaz beste bat hartu ahal izango du azoka egunean.

Jasotako materiala erakusgai ipiniko dute abenduaren 3an, eta "prezio sinbolikoa" ezarriko diote; bat, bi edo hiru euroko salneurriak izango dituzte, esate baterako. Azokako parte-hartzaile guztien artean 50 euroko txartel bi zotz egingo dituztela aurreratu dute antolatzaileek. Txartel horiek euskarazko liburu, jolas eta CDak erosteko erabili beharko dira, azaldu dutenez.

Internet ikastaroa

Bestalde, internet ikastaroak eratu dituzte datozen asteetarako. Azaroaren 21etik abenduaren 2ra internet eta administrazioalotzen dituen zikloa emango dute, 20 orduko iraupenagaz. Openoffice aplikazioaren berri ere eskainiko dute; astelehenean oinarritzko garatuko dute, eta azaroaren 28an aurreratu. ■ M.O.

ZALDIBAR

Alkateagaz zuzenean berba egiteko aukera dute herritarrek

Gobernu taldeak, udal "irekia, parte-hartzea bermatzen duena eta gardena" du helburu, eta horretarako bitartekoak ipintzen dabil. Batzorde informatiboak zabalak izateaz gainera, alkateagaz zuzenean berba egiteko aukera eskaintzen dute, aurrez aurrekoan zein Internet bidez.

Udaletxean aurrez aurre zein Internet bidez berba egin ahal izango da alkateagaz

Udaletxean alkateagaz batzartu gura duenak, martitzenetan 09:30etik 11:00etara eta eguaztenetan 13:00etatik 15:00etara egin dezake, aldez aurretik hitzordua eskatuta. Internet bidez, udalaren webgunean atal berezia sortu dute. Izen-abizenak, posta elektronikoa eta gaia bidali behar dira arantza@zaldibar helbide elektronikora. ■ M.O.

GARAI

Bertso afaria, hilaren 26an, Julio Soto eta Sustrai Colinagaz

Hurrengo barikurako bertso afaria antolatuko du Garaiko Udalak, Julio Soto eta Sustrai Colina bertsolariak gonbidatuta. Aurreko urteetan ere, data hauen bueltan eratu izan du udalak ekitaldi hori; bertsozale ugari batzen duen saioa izan ohi da.

Iluntzeko 21:30ean hasiko da afaria Otea-Loran elkartean. Edozelan ere, iluntzeko 20:00etan egin dute elkartzeko deia, poteoa egingo dute-eta trikitilarien laguntzagaz, azaldu dutenez. Mahaian jesarri orduko girotuta egongo dira bertaratutakoak, beraz.

94 681 63 93 telefono zenbakira deituta egin daitezke erreserbak

Martitzenerainoko epea ipini dute izena emateko; 20 euro balio du afarirako sarrerak, 15 euro 16 urtetik beherakoen kasuan. Udaletxera deituta, 94691 63 93 telefono zenbakian, egin daitezke erreserbak. ■ M.O.

IURRETA



Momentu hunkigarriak biziara zituen ekitaldiak Aita San Migel plazara hurreratu ziren iurretarren artean. Iñak i Iruñea

Ehunka lagun batu zuen mendeurrena bete duen banderari egindako omenaldiak. Aita San Migel plazak eskainitako agertoki berezia aprobetxatuz, ekitaldi ikusgarria eskainizuten. Dantzariak, abesbatzak, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Juan Mari Areitio bertsolariak, Fasoden maliarren elkartek eta Bidane Txopitea abeslariak parte hartu zuten, besteak beste. Udalordezariak etahainbat elkartekoak ere bertaratu ziren.

Antzinako kontalarien moduan jardun zuen Josu Unzueta, une hunkigarriak biziara. Banderaren mendeurrena aprobetxatuz, herri sentimendua iru-

Banderaren bueltan batu eta dantzatu dira ehunka iurretar

Ehun lagunetik gora batu ziren frontoian antolatutako herri-afarian

dikatu zuten behin eta berriro. Ondoren, herri-afarian ehun lagunetik gora batu ziren frontoian.

Mendi ibilbidea

Asteburukoa izan zen ekitaldi nagusia; hala ere, oraindik ere izango da ekitaldirik. Horretara, herriko banderaren mendeurreneko mendi ibilaldia antolatu

dute biharko, azaroaren 19rako, Zaldai mendi taldeak eta 1911-2011 Herri Batzordeak. Aita San migel plazatik irtengo dute 09:00etan; izena ematea 08:30etik

Banderaren mendeurreneko ospakizunen barruan, mendi ibilaldia egingo dute bihar

aurrera egin behar da, doan. Ibilbide bi daude: Laixiarretik (20,3km) eta Gallandatik (14,4 km). Guardetxeraino bide bera egingo dute; azken zatia ere bai, Azkoratik aurrerakoa. Informazio gehiago: zaldaimendialdea.org/ / zaldai@hotmail.com. ■ M.O. / A.B.

> Bideoa: www.anboto.org

MALLABIA

Abesbatzek kontzertua eskainiko dute Gaztainerre Egunean

Trikitixa eskolakoek Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin batera parte hartuko dute



Tradizio handia dute Mallabian abesbatzek.

Zapatuan Mallabian musika emanaldia eskainiko dute Jasokunde eta Mendibil abesbatzetako kideek, Santa Zezilia eguna ospatzeko asmoz. Hitzordua Andra Mari elizan jarri dute, azaroaren 19an, 20:00etan. Kontzertuan trikitixa eskolako kideek ere parte hartuko dutela ezagutzera eman dute antolatzaileek. Beraz, trikitixa ikasten dabilzanek jendaurrean kontzertua emateko aukera izango dute.

Musika emanaldiaren ondoren, Mallabiko Orraitio euskara

elkartek gaiztainerrea antolatuko du. Eguraldi ona egiten badu, gaztainak plazan banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Eguraldi txarra badago, berriz, elizpean elkartuko dira. ■ J.G.

Musika emanaldiaren ondoren, Orraitio euskara elkartek gaiztainerrea antolatuko du

ATXONDO

Gazte Asanbladak bere ekintzen berri emateko bloga sortu du orain. Eduki apurka-apurka betetzen hasi dira atxondokogazteasanblada.blogspot.com ataria. Azaroan ipini dute bloga martxan, eta euren ekitaldien berri emateaz gainera, kontaktatzeko aukera ere ematen dute.

13. urteurrena

Atxondoko Gaztetxeak 13. urteurrena ospatuko du abenduaren lehenengo asteburuan. 1998ko abenduaren 4an okupatu zuten

Gazte Asanbladak bloga sortu berri du

Azaroan ipini dute martxan Interneteko ataria

tren geltoki zaharra, eta ordutik gehienetan azaroaren amaieran ospatu dute urteurrena, Durango-ko Liburu eta Disko Azokagaz batera ezizateko. Urteurrenako ekintzen azken prestaketetan dabilta orain asanbladako kideak. ■ A.U.

Abenduaren lehen asteburuan 13. urteurrena ospatuko du Atxondoko Gazte Asanbladak




ENPRESEN GIDA BIRTUALA



HAU DA ZURE AUKERA!

Ezagutarazi zure enpresa Interneten! Zure enpresa Interneten DOAN promozionatzeko aukera ematen dizugu.

www.mdurango.org/.../Empresas_GuiaVirtualEmpresarial.aspx

Haremanetarako kontaktua:
Telf: 94 623 25 22 (Enpresa Teknikaria)
Email: pymes.mdurango@bizkaia.org




Jarduera hau PO FSE 2007-2013 VALORA proiektuaren baitan egin da, proiektu horren finantziazioa funtsen %50, hain zuzen ere. EGIF-ek eman du. Esta actuación se ha desarrollado en el marco de PO FSE 2007-2013 VALORA, cofinanciada en un 50% por el FSE.

DURANGALDEA

Aldundiak Gerediaga elkarteari emango dio Lauaxeta saria

Abenduaren 1eko ekitaldian jasoko du Gerediagak VII. Lauaxeta Saria

Gerediaga elkarteak Liburu eta Disko Azokaren antolaketa azken txanpan albiste pozgarria jaso du. Bizkaiko Foru Aldundiak urtero ematen

Bizkaian euskara zabaltu, sustatu eta normalizatzeko egindako lana saritu gura dute

duen Lauaxeta Sariaren VII. edizioa elkartearentzat izango da aurtengo. José Luis Bilbao ahaldu nagusiak emango du saria, abenduaren 1ean goizeko 11:00etan, Foru Jauregian egingo duten ekitaldian.

Sari banaketan Miren Josune Ariztondo kultura foru diputatuak ere parte hartuko du.

Aldunditik azaldu dutenez, Lauaxeta Saria sari sinbolioa da, eta Bizkaian euskara zabaltu, sustatu eta normalizatzeko eginiko ahaleginagatik nabarmentzen diren irabazi asmorik bako taldeak edo pertsonak saritzen ditu. Elkartekide guztiek eginiko lanari esker, Gerediaga elkarteak hainbat lan arlo garatu ditu: Durangaldeko ondare historiko, artistiko eta

direla azaldu dute elkartetik. 1965ean sortu zen, eta bere kezka nagusia eskualde kontzientzia sortzea da: "Horrela, urteetan, eskualdeak nortasun propioa izan zitezkeen. Nortasun horretan oinarrituta, elkartearen helburuetako bat kontzientzia komuna berreskuratzea eta zaintzea da, berezko ezaugarriak babestuz eta ahaztuta daudenak berreskuratuz".

Artxibategia

Ikerketari dagokionez, Gerediaga hainbat arlo jorratzen ditu: eskualdearen historia, antolaketa eta gizarte ezaugarriak, kultura, gizarte eta ekonomia ondarea... Daudenak gorde eta galdutakoak bilatuz, Durangaldeko dokumentategia helburu horren ardatz bilakatu dute. Gerediagak artxibategian eskualdeko historiaren dokumentu garrantzitsuak bildu dituzte.

Zabalkundeari dagokionez, eskualdearen garapenerako, Durangaldeko bizi kalitatea hobetzeko eta eskualdearen batasuna berreskuratzeke, ondare historiko kultural eta soziala ezagutaraztea ezinbestekoa dela azaldu dute.

Gerediagaren ibilbidean nabarmentzekoa da 46. Durango Liburu eta Disko Azoka antolatzen diharduela. Aurtengo aldian, abenduaren 4tik 8ra bitartean Durango euskal kultur gintzaren erreferente izango da. ■ J.D.

Jose Luis Bilbao ahaldu nagusiak emango dio saria Gerediaga elkarteari

Abenduaren 1ean, 11:00etan, jasoko dute saria Gerediagak kideek, Foru Jauregian

dokumentala berreskuratzea, folklora adierazpenak mantentzea, eskualdearen iragana ikertzea eta ikerketa lan berriak sustatzea; hori guztia, Durangaldea ezagutaraziz eta tokiko erakundeei aholkularitza eskainiz.

Sorrera

Gerediagaren helburuak ondarea zaintzea, ikertzea eta zabaltzea



Gerediagak Ondare Jardunaldien inguruko ekitaldiak antolatzen ditu, besteak beste. Gerediaga

OTXANDIO

Osakidetzak "oso ontzat" jo du zine zaharra osasun etxe berria kokatzeko

Zine zaharreko azpiegiturretan pediatria zerbitzua emateko "espazio nahikoa" dagoela adierazi zuten

Orainsu Osakidetzagaz batzarra egin du udalak, eta, bertan adierazi dietenez, zine zaharreko azpiegiturretan egin asmo duten osasun etxe berriaren "kokalekua zein espazio baldintzak oso positiboak

dira". Horrez gainera, Osakidetzako ordezkariak adierazi dutenez, "pediatria zerbitzua emateko nahiko espazio egongo da osasun etxe berrian". Hori horrela, 2012an zine zaharra bota eta exekuzio proiektua egitea dute helburu.

Bitartean diru-laguntza biltzen dituzte. Eraisketa proiektua idazteko 3.988 euro jaso dituzte Eusko Jaurlaritzatik, eta kontsultategi berriaren proiektua idazteko 41.300 euro Osakidetzatik. ■ J.D.

Kontsultategiko proiektua eta eraisketa proiektua idazteko laguntza bana lortu dituzte

Oro har, KPlaren arabera igoko dituzte arau fiskalak 2012an

%2,4ko igoera onartu du udalbatzarrek

Ordenantza fiskaletan, oro har, KPlaren arabera %2,4ko igoera onartu zuen udalbatzarrek, aho batez, joan zen asteko udalbatzarrean. Salbuespena zenbatekoa ehunekoetan adierazita duten zergetan dago; horiek ez dute ezela-ko igoerarik izan. Beraz, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren Gainera Zerga eta Ondasun Higiezinaren Gainera Zerga, esaterako, bere horretan mantendu dituzte 2012an.

Obren gainera zergak eta ondasun higiezinaren gainera ez dute igoerarik izango

Gama altuko ibilgailuen zerga handiagoa izango da gama baxukoena baino

Horrez gainera, udalak ematen dituen zerbitzuetan, udalari zerbitzua ematen diotenekin egingo da igoera bera onartu da. Hori horrela izanda ere, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gainera Zerga, gama altuko ibilgailuentzako igoera handiagoa izango da gama baxukoena baino. Horrela, 14tik 15,99 arteko zaldi fiskalak dituzten autoei %5eko igoera ezarri diete; 16tik 19,99 artekoak %7,5; eta handik gorakoak %10.

Laguntzak zerbitzuetan

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen tasetan ere laguntzea erabaki du udalbatzarrek. Zerbitzu sozialaren eta interes pribatuaren artean bereiztuko dute. Izan ere, "ez da berdin eroldarako kudeaketa soila egitea edo arkitektoari denbora eta lan asko eskatzen dion gestioa egitea", azaldu dute udal arduradunek. ■ J.D.

- Umeentzako produktu ekologikoak
- Opari pertsonalizatuak
- Kosmetika ekologikoa eta naturala
- Xaboi naturalak
- Ambientadoreak...

EL MUNDO DEL JABON

Uribarri, 21 (zinema aurrean)
Tel.: 94 603 24 26
DURANGO

ZAPATU
ARRATSALETA
ZABALKI

R.P.S. 214/06

A. Urreta podologo

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podologo 188. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behe • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Gremioen gida

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behe - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

berriozabaleta
Iturgintza • Berokuntza
gremioen koordinaketa
jose miguel acedo
mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK
SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK
Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com
Panasonic
Telebés
Instalazioak
Oñizola

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Solaguren kalea 3 • ABADINO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 33 74
urtiaga.sieterra.es
urtiaga
gremioen koordinazioa
BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak
Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

DEKORAZIOA

a-metz
[barne] diseinua
Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak
www.a-metz.com
Ibaizabal, 3A behe • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com
K21

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

LORAZAINTZA

Jardines Patxi
Lorategiak
Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

AROTZERIA

EGUIA S.L.
AROTZEGIA
• GREMIOEN KOORDINAZIOA •
Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653
Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

sagasta
ITURGINTZA
Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak
GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA
Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

ABADIÑO



Igerilekuko abonuatikoko tasa % 3 gehiago ordaindu beharko dute erabiltzaileek.

Tasa eta zerga gehienak berdin, baina zenbait salbuespenekin

AI eta EAJk egin zuten proposamenagaz bat; abstenitu egin zen, aldiz, Bildu

Komunikabideetara bidali duen oharrean jakinazi du gobernu taldeak AIren eta EAJren bozkekin onartu zutela, joan zen astean burutu zuten plenoan, "2012an tasa eta zerga gehienak daudenean mantentzea". Abstenitu egin zen Bildu.

Abadiñoko Independentieak taldeak bidalitako oharrean esaten denez, "eguzteneko plenoan onartutako proposamenak, krisi sasoi honetan herritarrenganako presio fiskala ez areagotzea du helburu, baina aldi berean udal zerbitzuak mantentzea".

Beste zerbitzu batzuentzatiko tasak eta zergak daudenean mantenduko dituzten arren, hainbat salbuespen burutu dituztela jakinarazi du gobernu taldeak: %4,6 igoko dute Ondasun Higiezen Gaineko Zerga; %3,5 Autoen Gaineko Zerga; igerilekuko abonuatikoko tasa %3 gehiago ordaindu-

"Herritarren gaineko presio fiskala ez areagotzea" duela helburu dio gobernuak

ko dute erabiltzaileek; eta futbol zelaia eta frontoia erabiltzeagatik tasa ere igo egin dute.

"Datozen urteetarako aurreikuspen gehiagogaz jokatzeko eta gutxien daukatenen mesedetan igoera progresiboa egitea" eskatu zuen, aldiz, Bildu.

Komunikabideetara bidalitako oharrean, "hainbat urtez zaudenean mantendu eta gero, Bizkaiko herri askotan dabilta zergak igoen", azpimarratu du Alko udal gobernuak: "Bildu eta EAJk tasak %3,8 igo dituzte, esaterako, Basaurin". ■ I. Esteban

Emakumeek historian betetako eginkizunaz

Azaroaren 16tik abenduaren 14a arte burutuko dituzte Abadiño-ko Udaleko Berdintasun Sailak antolatu duen ikastaroaren saioak. Historian zehar "emakumeak isilarazteko bizitako prozesuaz hausnarketa" bultzatu gura dute ekimenagaz.

Ikastaroan parte hartzeko izena ematen dutenek, besteak beste, historia nork eta zelan eraiki eta idatzi duen hausnartuko dute, Janire Arriaga Casas irakasle eta historialariak gidatuko dituen saioetan.

Historia genero ikuspegi batetik jorratzeko beharraz gogoeta egingo dute

Bi orduko lau saio egingo dituzte, eta bisitaldi gidatua egingo dute Basaurira, herri hartan emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko egin duten lana ezagutzeko.

"Oso garrantzitsua iruditzen zaigu gertaera hauetaz hausnartzea, nekez sortuko baitugu berdintasunean oinarritutako gizarterik, emakumeek historian izan duten eginkizuna onartzen ez badugu", azpimarratu du Yanire Moreno zinegotziak.

Izen ematea: Udal Mediatekan, Errota kultur etxean, edo interneteko berdintasuna@abadiano.org helbidean. ■ I. E.

MAÑARIA

Udalaren eskaria Aldundiko Garraio Sailari

Herria zeharkatzen duen N-623 errepideak bidea gurutzatu gura duten oinezkoen eragindako kalteei aurre egiteko soluzioa ipintzeko eskaria aurkeztu du gobernu taldeak Aldundiaren Garraio eta Herri-lan Sailean.

Udal gobernuaren ustez, "herriguneak zebra-bide gehiago behar ditu". Lehen kendu zuten zebra-bidea "berreskuratzea" proposatzen du Bildu. Endika Jaio alkateak adierazi duenez, Mañariko Udalaren eskariei erantzuteko prestutasuna adierazi zuen Aldundiak.

Gehiengorik ez

Joan zen barikuko udalbatzarrean eraman zuen Bilduko udal gobernuak Mañaria Udalari Euskaldunen Amankomunazgoan sartzeko proposamena. Gobernu taldeko zinegotzi bat falta zen plenoan, eta, EAJk kontra bozkatu zuenez, proposamenak ez zuen aurrera egin. Uribelarrea EAJko zinegotziak azaldu duenez, "diru asko suposatzen du sartzeko, eta gaitza da ateratzeko". Jeltzaleek kontra bozkatu zuten, ez dutelako "UEMA-n sartzeko premiarik ikusten, eta Euskara Normalizatzeko Planagaz jarraitzeko" apustua egiten dutelako.

Hurrengo pleno batean landuko dute gaia berriro. ■ I. E.

MUSIKALDIA-2011

IURRETA



AZAROAK 18

Sax@roa

19:00etan
Ibarretxe kultur etxean

AZAROAK 22

Naroa Intxausti eta Bilboko Udal Txistulari Banda

19:30etan
Aita San Migel Parrokian

Doan da



IURRETA ELEIZATEKO UDALA

ELORRIO

Bide-garbiketaren eta animalien jabetzaren ordenantzak lantzen

Gobernu taldeak urte amaierarako ordenantza biak udal-bilkuran bozkatzeko itxaroten du

Elorrioko Udalak bere lehenengo bide-garbiketa eta animalia jabetza ordenantzak idazten dihardu. Bi testuen zirriborroak batzorde informatibotik pasatu dituzte, eta datozen egunetan berriro eztabaidatuko dituzte batzorde horietan.

Eskubide eta betebeharrak ezartzea aurreikusi dute; baita hainbat debeku ere

ko ordezkariak. Gobernu taldeko kideek urte amaierarako ordenantza biak udal-bilkuran bozkatzeko itxaroten dutela jakitera eman dute. "Herritarren bizikidetzaren bermatzeko legeak finkatzea eta bizikidetzaren hondatzen duten portaeren aurrean udalak izan beharreko jokabidea arautzea" dute helburu aztergai dituzten ordenantzekin.

Bide-garbiketen ordenantza-gaz, "zikinkeria saihestea" gura dute. Horretarako, herritarren eskubide zein betebeharrak ezartzeko aurreikusten dute, baita debekuak ere: kalean edozein produktu botatzeko, txiza egin eta txistua botatzeko, arropa eta alfonbrak astintzea 20:00etatik 08:00etarako tartetik kanpora edo pintaketak egitea, besteak beste. Etxe eta saltokien jabeek fatxadak zaindu behar dituztela dio proposamenak, baita animalien kakak batu behar direla ere.

Animalien jabetzari dagokionez, zaintzeko, edukitzeko eta saltzeko arauak ezartzea dute helburu. Txori, txakur, katu eta kaleko edozein animalia janaria ematea, baimenik barik, debekatu egin gura dute. Janari-dendetan, igerilekuetan zein osasun eraikinetan animaliak sartzeko ere galarazteko asmoa dute. ■ M. O.

IZURTZA

Umeendako jolasgunea eta gimnasiarako ekipamendua

San Nikolas egunean, abenduaren 6an, aurreikusten dute Abadetxe parkean ipiniko duten umeendako jolasaren eta nagusiendako gimnasiarako gunearen inaugurazio ekitaldia burutzea.

Datorren astean ekingo diote, Bilduko gobernu taldeak adierazi duenez, lanei. Luis Jose Ballarín alkateak azaldu duenez, besteak beste, Durangoko Ezkurdi plazako umeendako jolasgunea prestatu duen enpresari esleitu diote gunea atontzeko lana.

Asteon udalean azaldu digutenez, 39.000 euroko aurrekontua du proiektuak

Besteak beste, nagusiendako gimnasiarako aparatuekin, eserlekuarekin eta kale-argi berriei gura dute parkea atondu, eta belargune bat ere edukiko du eremuak. Asteon udalean azaldu digutenez, 39.000 euroko aurrekontua du aisialdi gune berri hori atontzeko proiektuak. ■ I. E.

Durangaldean labor

Berrio-Otxoako nagusien aste kulturala astelehenean hasita

Astelehen goizean, Bilboko Udaletxerako bisitaz zabalduko dute aste kulturala. Martitzenean berbaldia izango dute, 17:00etan, eta eguaztenean kontsumizio baterako gonbita egingo dute. Eguenean Agustin Garamendiko ikasleek emanaldia eskainiko dute, 17:30ean, eta barikuan igel-txapelketan batuko dira 16:00etan. Hilaren 26rako bazkaria eta hilen aldeko meza antolatuko dituzte.

Zengotitabengoa eta Areitioren epaiketak

Andoni Zengotitabengoa elorriarraren aurkako epaiketa martitzenean amaitu zen Portugalen, eta abenduaren 12an emango dute epaia. ETarentzako 1.500 kilo lehergai biltzealeporatzen diote. Bestalde, Alaitz Areitio iurretarra asteon epaitu dute Parisen, bere atxiloketa eguneko gertakariengatik. 17 urteko zigorra betetzen dabil.

'Kontsumoa eta nagusiak' ekimena

Elikagaien segurtasuna eta kontsumo arduratsuen gaineko berbaldi eta tailerrak izango dituzte azaroaren 28tik abenduaren 1era, Durangoko Adinekoen Udal Egoitzan. Izena emateko, adintek@durango-udala.net-era idatzi edo 94 465 74 51 telefonora deitu daiteke.

Bizkaiko Bildotsaren kanpaina hastear

Erraldek, Bizkaiko artzainek, harakinek eta ostalariek Bizkaiko Bildotsaren kanpaina hasiko dute azaroaren 23an, Erralde hiltegian. 13:00etan ipini dute hitzordua, bildots txuletilak dastatzeko. Denen arteko elkarlana eta elikadura subiranotasuna aldarrikatu gura dituzte kanpainagaz.

HAUTESKUNDEAK

Eskualdean ere ekitaldirik ekitaldi ibili dira bozka bila

Hauteskundearen harira hainbat ekitaldi burutu dituzte alderdi politikoek

Domekakoak hauteskunde orokorrak badira ere, botoak herriz herri bilatu dituzte Kongresuan eta Senatuan ordezkari bilatzen duten alderdi politikoek. Durangaldean ere hainbat ekitaldi izan dira.

EAJko Andoni Ortuzar eta Josu Erkorekak mitina eskaini zuten Mallabian hilaren 6an, eta joan zen barikuan Durangoko Ezkurdira etorri ziren berriro, Aitor Estebanegaz batera. Hurrengo egunean txokolatada egin zuten Ezkurdin. Durangoko alkate Aitziber Irigorasek ere ekitaldian parte hartu zuen.

PSE-EEri dagokionez, Kongresurako Bizkaiko Hautagaia den Eduardo Madina eta alderdi sozialistako bozeramaile den Iñaki Egañak hitzaldia eskaini zuten Durangon. Horrez gainera, infor-

Alderdi nagusi guztiek ekitaldi bat baino gehiago egin dute Durangaldean

mazio orriak eta larrosak banatu dituzte Abadiñon eta Durangon.

Alderdi Popularraren kasuan, Durangoko kaleetan euren progra-



ma laburbiltzen duten informazio orriak banatu dituzte; Juan Jose Gastañasatorrek Durangoko PPko zinegotziak parte hartu du ekimenean.

Amaiur koalizioari dagokionez, egunean, ekitaldi politikoa egin zuten Durangon eta Bizkaiko zerrendaburu Iñaki Antigüedad eta bigarren zerrendaburu Jon Inarritu izan ziren hizlariak. Horrez gainera, Zornotzako Zelaia eta frontoian ere azaldu zuten euren proiektua.

Alderdi nagusi guztiek ekitaldi bat baino gehiago egin dute Durangaldean

Equo alderdiak ere informazio orriak banatu ditu asteon Ezkurdin; demokrazia birsortu gura ei dute, besteak beste.

Jarraipena webgunean
Domeka honetan, hauteskunde egunean, anboto.org webgunean hauteskundeetako jarraipena egingo dugu Durangaldeko hamabi herrietan eman diren emaitzak jasoz. ■ J.D.

Burujabetza ekonomiko eta politikoaren aldeko aldarria egin du LABek

LABen ustez eredu berria "langileek erabaki behar dute eta Euskal Herriak erabaki behar da"

LABek salatu duenez, gobernuan izan diren politikariek eta alderdiek "administrazio guztietan murrizketak egin dituzte, eta krisiari aurre egiteko erabili dituzten errezetak "eskubide laboralak

LABen esanetan "langabezia tasa hirukoiztu egin da Durangaldean 2006tik hona"

zapaltzea, gastu sozialak murriztea eta pentsioen pribatizazioa dira", besteak beste. "Eskualdean bertan nabarmena izan da errealitate hori. Langabeziaren datuak beldurtzekoak dira; herri gehiene-

tan, 2006. urteagaz alderatuta, hirukoiztu egin da langabezia tasa", dio LABeko Eulalia Zilonizaurrekoe-txeak. PPrent eta PSOEn politikak kritikatu eta EAJren onespengaz burutu dituztela diote.

"Amaiur da alternatiba"
Horren aurrean bestelako eredu ekonomiko eta soziala eraikitze-ko beharra azaldu dute: "Langileek erabaki behar dute, eta Euskal Herrian erabaki behar da". Bide horretan, alternatiba Amaiur koalizioa dela diote: "Lan harremantarako eta babes sozialerako euskal esparrua defendatzeko eta eredu berria eraikitze-ko aukera emango die euskal langileei". ■ J.D.







JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel-Faxa: 94 623 18 03



Maite Drogeria
Lurrindegia eta Bitxikeridenda

Barrenkalca, 22 • 48200 Durango
94 657 09 17 • 655 703 947

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02



BERBAZ>

“Lehenago kenduko dute autonomia erkidego izaera, lurralde historikoak baino”

Kontzertu Ekonomikoak Espainian eta European duen lekuari buruzko tesiagaz, Leizaola saria jaso du Serranok



Susana Serrano Gazteluurrutia •

- Finantza eta Tributu Zuzenbideko irakaslea
- Elorrioko bake epailea da

“Kontzertu Ekonomikoa ez da behar beste ezagutu eta baloratzen”

Lege deserosoa da eurentzat?
Espainian ez da erraz onartzen estatu barruan desberdintasunak egotea. Katalanek kontzertu ekonomiko bat eskatu dute, eta ikusi zelako iskanbiletan dabilzan. Espainian, oro har, ez dute sinesten sistema horretan; euren esku egongo balitz, kendu egingo lukete. Baina uste dut lehenago kenduko dela autonomia erkidego izaera, lurralde historikoena baino. Dirua dirua da, eta lurralde historikoen ahalmena Espainiako Konstituzioak onartu egiten du.

Sistema propioa defendatzen duzu...

Nik argi esaten diet ikasleei; konstituzionalista naiz. Konstituzioetan sinesten dut, baina ez Espainiakoan; egunen batean gure Konstituzioa edukiko dugula itxaroten dut. Orain daukagun sistema ez da perfektua; baina gure sistema da, eta hori kenduz gero Espainiako sistema daukagu. Hobe da hau defendatzea eta barrutik aldatzea.

Gaiak asko motibatzen zaitu.
Uste dut Kontzertu Ekonomikoa euskal interesen defentsarako lerro ona dela. Euskaldun izaera defendatzea, lurraldetasuna... guzti horretan, tresna oso ona da. Ez da behar den beste ezagutzen eta baloratzen, baina hori da besteengatik bereizten gaituena. Oraindik ez gara jabetu zelako ahalmenak ematen dizkigun. Ez dut esaten nahikoa denik, baina hori badaukagu behintzat. ■ A.Ugalde

Unibertsitatean astun egiten zitzaien tributu eta finantzen ikasgaia Susana Serrano Gazteluurrutiar. Orain horrexetan dabil irakasle. Kontzertu Ekonomikoaren gaineko doktoretza tesiagaz, Jesus Mari Leizaola 2011 saria lortu du.

Tesi mardula da. Zelan laburtu zenezake bertan defendatu duzuna?

Espainian, estatuko finantza botere orokorraz gainera, beste lau daude: Nafarroakoa eta EAEko lurralde historiko bakoitzekoa. Ukaezina da hori. Lau finantza botere horien zeregina ez da bakarrrik zergak batu eta kudeatzea; estatuko legeen parekoa den tributuei buruzko legeak egiten dituzte. Nafarroako tri-

butu legeek, parlamentuak egiten dituztenez, lege maila daukate; EAEkoak, aldiz, lurralde bakoitzeko batzar nagusiek egiten dituzte, eta ez dute lege mailarik, erreglamentu maila baizik. Hainbat adituk diote batzar nagusiek legebiltzar izaera daukatela. Baina espainiar legearen aurrean ez daukate izaera hori. Desajuste bat zegoen, eta hortik etorri zen Kontzertu Ekonomikoa blindatzea. Blindajea ez da existitzen, baina.

Zergatik diozu ez dela blindajerik existitzen?

Blindajea izango litzateke ezelako trabarik ipini ezin balitz, eta alde horretatik Espainiako Konstituzioa ere ez dago blindatuta; aldatu daiteke. Orain arte, tributuari buruzko arauak jurisdikzio arruntetan salatu zitezkeen. Orain, ‘blindajeagaz’, Konstituzio Auzitegira jo behar da. Arau horien kontra jo dute-nak Errioxako gobernua, Kantabriakoa eta Errioxako UGT eta enpresarien elkarteak izan dira. Legea aldatuta, murriztu egin dira salaketa jartzeko legitimatuak, eta UGT eta enpresariak geratzen dira

“Espainian oro har ez dute sinesten sistema honetan, eta euren esku egongo balitz kendu egingo lukete”

kanpoan. Bidea zaildu egin da, baina salatu dezakete; Estatuari begira blindajerik ez da sortu, eta Europara begira zer esanik ez; edozein arauk europar legediaren kontra joz gero, edonork salatu dezake.

Errioxatik eta Kantabrietatik etorri dira Kontzertu Ekonomikoaren kontrako salaketak

Errioxarrek esaten dute *muga efektua* dagoela; Errioxako enpresak Arabara joaten direla zerga gutxiago dagoelako. Ikertzen ibili naiz: 2007an, Errioxatik Arabara 80 enpresa joan ziren; Arabatik Errioxara 60. Zer edo zer ondorioztatze-ko datu gehiago behar ditut; enpresen kapitala, langile kopurua eta lurak salerosi zein eraikitze-ko prezioak ere aztertu behar dira. Muga efektuarena politikoki erabilitako argumentua da, eurek ere onartzen dute hori.

Europako auzitegiara jo zuten...

Euren argumentua zen arau horiek Espainiaren arauagaz bat datozeela, baina Europakoagaz ez. Epaiketari Kontzertu Ekonomikoaren aldekoen artean estatuko abokatua ere bazegoen. Azken finean, Kontzertu Ekonomikoa Espainiako lege legitimoa da. Erresuma Batuko ordezkariak ere alde agertu ziren. Gales eta Eskozia eskumenak berreskuratzen dabilza, eta tributu boterea dela-eta hemengo eredia aztertzen dabilza. Europako Batasunean posible da estatu barruetan sistema bereziak egotea: Alemaniaren sisteman estatu bakoitzeko kontseilaria gobernuko ordezkariagaz joaten da Europara euren interesak defendatzera. Madrilen ez lukete onartuko aldundietako ordezkariekin Europara joaterik.

“Errioxarrek ezin dute demostratu ‘muga efektua’ dagoenik”

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA



“Ez da kontzertu bat gehiago izango; bereziki prestatu dugu”

Martxoan kaleratu zuten ‘La ceremonia de la confusión’ bigarren diskoaren aurkezpen kontzertua da **Shinova** Durangaldeko taldekoek horrenbesteko mimoagaz prestatu dutena. Azaroaren 25ean, Plateruenean da zita

Azaroaren 25ekoa ez da Plateruenean joko duzuen lehenengoa.

Ez, lehenengo diskoa ere, *Lati-dos*, bertan aurkeztu genuen. Aretoso aproposa da, eta gure lagun eta familiakoen gertukoa delako, lagun asko hurreratuko da. Gogo handia daukagu etxean jotzeko.

Zelan gonbidatuko zenukete jendea kontzertura?

Taldearen zale den jendeak ez dezala zalantzarik egin, ez da eta damutuko. Eta ezagutzen ez gaituztenek eman diezagutela aukera bat. Ez da kontzertu bat gehiago izango, berezia izango da.

“Ezagutzen ez gaituztenek eman diezagutela aukera bat: datozela!”

“Kanarietan eta Madrilén, esaterako, oso harrera beroa egin digute”

Diskoa Berriz grabatu zenuen, baina nahasketak Madrilén eta masterizazioa Finlandian egin duzue. Zergatik aukera hori?

Arrazoietakoa bat izan daiteke, gure soinu erreferentziak gehiago daudela hemendik kanpo. Gainera, taldekide guztiok jo dugu aurretik beste talde batzuetan, eta hemen zelan lan egiten den ezagutzen genuen. Hemendik kanpora proba egiteko gogoia genuen.

Diskoa aurkezteko kontzertuekin gura diezue orain.

Diskoaren lehenengo kontzertua Madrilén jo ondoren, taldekide aldaketa eduki genuen, eta udan ez dugu kontzerturik eskaini.

Hemendik kanpora dago egiten duzuen lako musikarentzako zirkuitu zabalagoa?

Bai, izan liteke. Kanarietan, Madrilén eta abar hainbat aldiz jo dugu, eta harrera oso beroa egin digute. Oso esperientzia aberasgarria izaten da hor zehar ibiltzea. Urta-rrilean berriro goaz Madrilera.

Zergatik erabaki zenuen diskoa Interneten deskargatzeko moduan eskaintzea?

Diskogintzan gauzak zelan dau- den ikusita eta jakinda ez genitue-

“Bide gaitzagoa da autoekoizpena, baina askoz betegarriagoa ere bai”

la gauzak atzeratu gura, onenazela pentsatu genuen; geuk egin eta prozesua geuk kontrolatzea zela egokiena erabaki genuen. Lehenengo astean diskoaren bi mila deskarga burutu zituzten. *Paypal* donazioen aukera ere eskaini genuen, eta harritu egin gaitu jendearen erantzunak. Gero, jendeak eskatu duelako eta geuk ere diskoan edukitzea gura genuelako, disko fisikoa ere fabrikatu genuen.

2008an hasi zinetenetik, zelako eboluzioa bizi izan du taldeak?

Etenbako eboluzioa izan da talde honena; apurka joan dira aukerak eta ideiak sortzen. Musikaren eta kulturaren arloa dagoen moduan egonda, gauza asko egin dugula esan daiteke. Soinu banda osatu dugu, orain, esaterako, *Freakland* izeneko animazioko sailerako. Pertsonaia moduan ere agertuko gara, gainera, bertan.

Zelan egiten duzue lan?

Gauregun etxean grabazioak egin ahal izateko dauden erraztasunekin, normalean, etxean egindakoa ekartzen du taldekideetako batek. Ideiak bakarka sortzen dira, eta elkarrekin garatzen ditugu gero. Letrak, batez ere, Gabrik sortzen ditu: berak kantatu eta sentitzen ditu. Bide gaitzagoa da autoekoizpena, baina askoz ere betegarriagoa ere bai. ■ I. Esteban

Taldekide izan dituztenek eta beste hainbat lagunek ere hartuko dute parte

Sorpresarik zapuztu barik, baina azaroaren 25eko kontzertu horretarako hain berezi egingo duen zer prestatu duten galdetu diegu Shinova laukotekei. “Gure bigarren diskoaren aurkezpen ofiziala delako izango da kontzertu berezia”, esan digute: “Berezia izango da, besteak beste, taldekide izandako lagunek parte hartuko dutelako, eta beste talde batzuetako lagunek ere

kolaboratuko dutelako”. Tenpel talde madrildarreko abeslaria eta lehenengo diskoan biolina grabatu zuen musikaria ere izango dira Plateruenean.

Summum Kolektiboak ipiniko ditu hiru dimentsiotako irudiak

Ikus-entzunezko lanak ekoizten dituzten Durango eta Elorrioko sortzaileek osaturiko Summum Kolektibokoek irudiak proiektatuko dituzte, gainera, azaroaren 25eko Platerueneko kontzertuan: kanta bakoi-tzari hiru dimentsiotako irudiak ipiniko dizkiote, eta kontzerturako *performance*-a ere prestatu dute lagun dantzari bik.

“Plateruenean jotzea guretzat berezia izango da, seguru”, diote Shinovakoek entsegu lokalean eurekin batu garenean. Ilusio handiaz itxaroten dute eguna. Gero, ahal duten guztia jotzea da gura dutena: “Orain arte bezala, talde aktiboa izatea; bidean aurrera egitea”.

FILM LABURRAK > LEHIAKETA



24 Ordu Digitalean lehiaketaren lehenengo saria Elorrion geratu da

Elorrioko Ikusi Makusi taldekoek aurkezturiko hiru minutu eta erdiko 'Bosgarren elementua' aukeratu zuten irabazle

Azaroaren 11n eta 12an burutu zuten 24 Ordu Digitalean lehiaketaren seigarren edizioa, Elorrion. Elorrioko kideek osatzen duten Ikusi Makusi taldearen *Bosgarren elementua* lanari eman zion saria epaimahaiak, zapatuan egin zen sari-banaketa ekitaldian.

Guztira, hamabost taldek eman zuten Arriola antzokian film

Hamahiru lanen artean aukeratu zuten lan saritua epaimahaiak

laburren lehiaketan parte hartze-ko izena, baina horietariko hamahiruk aurkeztu zuten, epaimahaiak emandako gaiekin, hogeita lau orduan osaturiko lana.

"Aldaketa" gaia eman zien antolakuntzak parte-hartzaileei, eta euren lanetan "gurpila" objektua eta "igaroa igaro" esaldia barneratzea zen baldintza. Zuri-bel-tza, mutua eta umoretsua da *Bosgarren elementua* lan irabazlea.

Lehiaketako lau sariak Durangaldean geratu dira aurretik: Atxondoko Katiuska Filmak taldeak aurkezturiko *Bueltaka-taka* lanak jaso zuen bigarren saria; Durangoko parte-hartzaile baten *Antiongásmico* lanak hirugarrena, eta Maritalavista elorriarren *Nikez dakit oso ondo zenbat joan ziren mendian gora-k* laugarrena. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediagako kidea



Magdalena

Igarotako urriaren 31n Durango Uriko eraikuntza txiki baina hunkigarri batek 200 urte bete zituen. Konkretuki, Magdaleno ermitak. 1811ko data honetan, Durangoko Udalak eraikitako kanposantu berria bedetatu zuten toki hartan, eta ermita kanposantuko kapera zen.

Lehenago toki hartan Santa Maria Magdaleno eliza zegoen. Noiz eraikia? Ba, honelako gauzeekin gertatzen den bezala, ez dakigu. Toki horretako lehen datuak begiratzen ditugunean, bertan zegoen. Eliza handia zen; ideia bat izateko, gutxi gorabehera, gaur egungo Mallabiko elizaren neurrikoa. Santa Maria Magdaleno aldre nagusiaz gain, beste hiru zituen. San Antoni eta San Antoniori, Santamañari eta San Lorentzori eskeinitakoak. Nahiz eta domekaro zortziretan meza izan, ez zen parroquia eta ez zuen bataiontzirik. Ospe handiko jaiak antolatzen ziren, uztailek 22an, Magdalena egunean. Udalak, egun handia izanik, "bandera eguna" bezala izendatuta zeukan, eta 1664an, San Fausto bezala, uriko zaindari izendatu zuten Santa Maria Magdalena.

1809an udalak uriaren kanpoaldean kanposantu berria eraikitzeke agindua jaso ondoren, ospeak eta sentipenak alde batera utziz, Magdaleno eliza botatzea eta espazio hartan eraikuntza berria kokatzea erabaki zuen. Aipatu dugun bezala, urriaren 31n bedetatu zuten hilerri berria, eta azaroaren 5ean lehen lurperatzea izan zen: Ana Maria Areitio lurperatu zuten, Iurretan jaioa eta Durangon bizi zen alarguna.

Kanposatuak iraun zuen 1898an Santikurutzekoa zabaldu zuten arte. Ondoren, udala 1910. urtera arte Magdalenoa, apurka-apurka, uzten joan zen, eta espazioa, ermita mantenduz, plaza bihurtu zuen. Zertzelada hauek bukatzeko galdera bat: 200 urte ez dute merezi oroimen ekitaldirik, nahiz eta...?

LITERATURA > IPUIN KONTALARIAK

Ipuin kontalarien umeentzako saioak Abadiño Mediatekan

Azaroko eta abenduko eguaztenetan, Udal Mediatekan izango dira udalak antolatu dituen ipuin kontalarien saioak

Jon Zabaletaren saioak zabaldu zuen azaro eta abenduko eguazten arratsaldetarako Abadiño Udalak antolatu duen ipuin-kontalaritza zikloa, joan zen astean. Umeei zuzenduriko sei ipuin emandak jasotzen ditu urte amaierarako egitarauak.

Umeei zuzenduriko sei ipuin kontagintza saio jaso dituzte egitarauan

SAIOAK

17:30ean,
Udal Mediatekan

Azaroaren 23an

Maita Franko

Azaroaren 30ean

Pello Añorga

Abenduaren 7an

Oihana Etxegibel

Abenduaren 14an

Josu Jimenez

Kontakizunen Garaia izenagaz, eta lau eta zortzi urte arteko umeak literaturara gerturatzeko amu moduan pentsatu dute programa. Umeek euren aisialdia euskaraz eta literaturagaz gozatuz eman dezatela da asmoa.

Datozen lau asteetako eguaztenetan, ahozko literaturak beteko du, 17:30ean hasita, Abadiño Udal Mediateka.

Azaroan, 23an eta 30ean, Maita Franko eta Pello Añorgak jardungo dute, hurrenez hurren, Udaleko Kultura Sailak antolatu duen zikloaren barruan, ume abadiñarrekin ipuinak konpartitzen.

Abenduko eguazten bitan, Oihana Etxegibel eta Josu Jimenez gonbidatuko dituzte zikloan parte hartzera: abenduaren 7an jardungo du Oihana Etxegibelek, eta 14an Josu Jimenezek. ■ I.E.

Hostoak

ERMUA
ERMUA ANTZOKIA

Azaroaren 25ean, barikua, 22:15ean
Sarrera: 12 €

SARREREN ZORZETA

SARREREN SALMENTA
Bertan eta BIKREN
quotaniko kutsazaleetan


Antolatzailea:

Babesleak:

Laguntzaileak:

Lauaxeta Saria 2011 Gerediaga Elkarte

lauaxeta saria



Eskerrik asko bazkide, babesle eta laguntzaileei



ZU ere izan zaitezke Gerediagako kidea. Durangalde bizi baten aldeko lana konpartitu nahi baduzu
ZATOZ Gerediagara.

DANTZA> ELKARRIZKETA

Zelan ailegatu zara Durangora, eta zelan sortu da zure lana bertan erakusteko aukera?

Iaz Durangora bizitzera etorri nintzenean egin nuen San Agustinegaz kontaktua, eta berehalakoan hartu zuten ikuskizuna aintzat; bai 2010eko udan entseguak egiteko bai egitarauan jasotzeko.

Nola azalduko zenieke ikusleei zelako ikuskizuna den 'Bárbara humana con cola'?

Pieza eszeniko berezia da: lan fisikoa eta soinuaren eta argien zuzeneko sorkuntza nahasten ditugu. Nire gorputzak mugitzean egiten duen soinuaren grabazioak eta argazkigintzaren eta zinematografiaren sorrerakoetatik oso gertu dauden argiak uztartzen ditugu. Off-eko ahots batek biribiltzen du lana, beldurrari eta desioari buruzko testu batez. Eszena gordina, kontzesiorik bakoa, gura izan dugu sortu. Ikuslearen begirada mugitzea da interesatzen zaidana: barrura begiratu dezan.

“Garapen sozialarekiko beldurrari eta desioari buruz dihardut”

Zer ideia gura diozu helarazi jendeari lan honez?

Idea bat transmititzea baino, entzuleari esperientzia bat proposatzea da gura dudana. Ideiek niri balio didate gehiago: zer eremu kontzeptual lantzen dihardudan ulertzeko. Oholtzan, baina, beste elementu batzuk agertzen dira, ez direnak arrazoiaren mundukoak: sentsibilitatearen, iradokizunen mundua zabaltzen da, soinuaren eta argien eta gorputzaren ekarpenek estimulu berriak zabaltzen dituzte. Azkenaldian giza kiaren gaiaren inguruan dihardut. Garapen sozialaren utopiarrekiko beldurrari eta desioari buruz dihardut pieza honetan.

Zer nabarmenduko zenuke lan honetatik?

Lan honen filosofiak, lan luze bat esku artean daukan musika talde batek legez, eraiki, mugitu eta eboluzionatzera eraman gaitu. Darabilgun elementu berri bakoitza entzun eta garatzen dugu. Hori da desafioa eta zailtasuna: emanaldi bakoitzean bakarra da

“Lan fisikoa eta argien eta soinuaren zuzeneko sorkuntza nahasten ditugu ikuskizunean”

Dantzaria eta dantza irakaslea da iaztik Durangon bizi den **Carla Fernández** mexikarra. Azaroaren 23an, Durangoko San Agustinen aurkeztuko du bere lana



argien eta soinuaren errepresentazioa, eta esentzia bera den arren, emanaldi bakoitzean dantza mugimenduak ere ez dira berdinak. Dramaturgia honen hautaketak mantentzen du obra bizirik, eta emanaldira eraikuntzan egoteak. Sentsibilitate eta zintzotasun handia eskatzen du lan molde honek.

Zelakoa izan da sorkuntza lana?

Luzea, batez ere. 2009tik, artistentzako hainbat egoitzatik igaro gara: La Gomerako Koreografia Zentroan, Sevillako Arte Eskolan, Gijonen eta San Agustinen burutu dugu lana. Hain zuzen, Durangon gehitu zaizkigu Katza musikaria eta Marc Cano argizatzailea. Lanari batasuna eta zentzua emateko giltzarri izan da euren lana.

“Emanaldi bakoitzean bakarra da argien eta soinuaren errepresentazioa”

Katza soinu-sortzailea eta Cano argizatzailea gehitu zaizkie Durangon

Zer proiektu daukazazu buruan?

Obra “zabalgaria” da *Bárbara humana con cola*: lanaren sorkuntza prozesua azaltzen duen dokumental batek laguntzen du proposamen eszenikoa. Gainera, testuekin eta obraren sorkuntza prozesuan geugaz izan ditugun beste artista eta erreferente batzuekin izandako elkarrizketak jasotzen dituen liburu bat ere gura genuke kaleratu. Sorkuntza eszenikoa-ri dagokionez, bikoteagaz jardutea da gustatuko litzaidakeena, eta aurrerago, *Bárbara* barne hartzen duen zientzia fikziozko dantzari buruzko trilogiaz *performance* bat osatzea ere gura nuke. Buruan darabilan beste gauza bat berriro dantza klaseak ematen hastea da. ■ I. Esteban

DANTZA> EMANALDIA

Gaztedi dantza taldea gonbidatu, Tronperriren urteurrenerako

Durangoko Tronperri dantza taldearen 50. urteurrenerako antolatutako ekitaldietako bat da, azaroaren 18an 20:00etan hasita, San Agustín kulturguneak hartuko duen dantza emanaldia: Santutxuko Gaztedi taldea gonbidatu du Tronperri, mende erdi ospatzeko aurten antolatu duten egitarauaren barruan.

Gaur, 20:00etan hasita, San Agustinen jardungo du Gaztedi taldeak

Hain zuzen ere, Durangoko Tronperri taldea legez urteurreneko ekitaldietan murgilduta dabil aurten Santutxuko taldea ere: 60 urte dira Gaztedi taldea sortu zutela Bilbon. Urteurrena ospatzeko, besteak beste, *Dantzari dantza, Otsagabia, Jaurrieta* eta *Arratiako jota* eskainiko dituzte Santutxukoek. ■ I.E.

PINTURA> LEHIAKETA

Jose Miguel Arranzen margolana saritu dute Elorrion

Hamabost partaidek jardun zuten, azaroaren 12an, Udalak eta Iturizoro elkarteak antolatutako haizetarako margo lehiaketan, Elorrion.

Urarkan zehar paseoan lana burutu zuen Jose Miguel Arranzen margolariak jaso du lehiaketaren 600 euroko lehenengo saria. Leticia Gasparren *Udazken bitxia* lanari eskaini diote 400 euroko bigarren saria, eta Eduardo Alsasuaen *Reflejo amarillo* lanari 300 euroko hirugarrena.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bestalde, hutsik geratu da lehiaketan herriko saria, eta Alipio Ruano margolariaren *Kondekuatik* koadroak jaso zuen 250 euroko akzesita. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 19 19:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDI IBILTARIA. Sarrera doan.

AZAROAK 24 20:00etan
INES OSINAGA
KANTUAREN KANTOIAN. Sarrera doan.

AZAROAK 25 22:00etan
SHINOVA + TENPEL + VOSTIK 108
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10euro.

AZAROAK 26 13:00etan
KANTU LAGUN KALEZ KALE
22:00etan ANTON. KONTZERTUA. 5-8euro

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MIAULESS
Vaiven Antzerki taldea
Azaroak 20 • 18:00

BARBARA HUMANA CON COLA
Carla Fernández
Azaroak 23 • 20:00

Azaroak 13 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



 anboto

AZAROAK 25

**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO
ZERBITZUA**





Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Tel.: 94 620 04 92



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



OSTEGUNA 24 BELDUR BARIK LEHIAKETA SARI BANAKETA

Tokia: San Agustin kultur gunea. Ordua: 19:00

OSTIRALA 25

KONTZENTRAZIOA Durangoko Udalak, Durangoko Berdintasunerako Udal kontseiluak deitutako kontzentrazioan parte hartzera animatzen zaitu. Tokia: Udaletxeko plazan. Ordua: 13:00

TXALAPARTA (emakumeen jabekuntzarako txalaparta ikastaroko ikasleak) Tokia: Andra Mari. Ordua: 20:00

MANIFESTAZIOA Tokia: Andra Mari. Ordua: 20:15

LARUNBATA 26 "BELDUR BARIK" II. JAIALDIA

11:00etatik aurrera Donostiako Emakumeen Etxean (Okendo). Izena emateko: www.beldurbarik.org

DURANGO



Urtero egiten dute kontzentrazioa udaletxe aurreko plazan.

Genero indarkeriaren kontra beldur barik egiteko hainbat ekitaldi

Beldur Barik! Lehiaketako sari banaketaz gainera, kontzentrazioak eta kultur ekitaldiak izango dira

Genero Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Durangoko Udaleko Aukera Berdintasun Sailekoek. Hilaren 24an, 19:00etan, aurtengo Beldur Barik! Lehiaketako sari banaketa egingo dute San Agustin kulturgunean. Durangoko lehiaketara ez ezik, hilaren

26an, 11:30etik aurrera, Donostiako Emakumeen Etxean (Okendo kalea) egingo den jaialdi orokorrean joateko deia ere egin dute; ize-na emateko: www.beldurbarik.org.

Horrez gainera, azaroaren 25erako beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Eguerdiko 13:00etan, kontzentrazioa deitu dute udaletxeko plazan, Durangoko Udalak eta Berdintasunerako Udal Kontseiluak.

Iluntzeko 20:15ean, berriz, manifestazioa abiatuko dute, Andra Maritik, udalak eta Durangoko Plataforma Feministak deituta. Manifestazioaren aurretik, 20:00etan, ekimenari jai giroa emanez, emakumeen jabekuntzarako txalaparta ikastaroko kideek txalaparta saioa eskainiko dute Andra Mariko elizpean. ■ J.D.

Azaroaren 25ean, iluntzeko 20:15ean, manifestazioa abiatuko dute Andra Maritik

Manifestazioaren aurretik txalaparta saioa eskainiko dute jabekuntza ikastaroko kideek

ZALDIBAR

Tren batean elkartutako istorioek eta ametsek osatutako antzezlan

Hamaika Teatro taldeak 'Viajeras al tren' antzezlan eskainiko du, azaroaren 25ean, eskolako aretoan

Azaroaren 25aren harira antolatu dituzten ekimenen artean antzezlan interesgarria eskainiko du Hamaika Teatro taldeak, eskolako aretoan, 21:30etik aurrera. *Viajeras al tren* izeneko obran, tren estazio bat hainbat emakumeren eta euren istorioen elkargune bihurtuko da: hiria faltan botatzen duten mendizaleak, senitarteko baten hileta elizkizunera doazen ama-alabak, mendebaldetik ihesian dabilen Dora, Kubara bueltan doan Primitiva.... Bakoitzak bere istorioa dauka, eta denak tren estazio baten bueltan elkartuko dira.

Antzezlan honetaz gainera, beste hainbat ekitaldi ere prestatu dituzte egun horri begira. Goizean, 11:30ean, genero indarkeriaren aurkako ibilbidea egingo dute, Lehendakari Agirre parkean hasi

eta udaletxeraino. Segidan, genero indarkeriaren kontrako manifestua irakurriko dute.

Horrez gainera, azaroaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, San Andres jaiei hasiera emango diete, eta jaietan ere genero indarkeriaren aurka egiteko deia egin dute udaleko ordezkariak. ■ J.D.

11:30ean, genero indarkeria salatzeke ibilbidea egingo dute, parketik udaletxera

Ibilbidea osatu ondoren, genero indarkeriaren kontrako manifestua irakurriko dute

DURANGALDEA

Indarkeriaren biktimei erantzuteko protokoloa geroago eta osatuago

Otsailean sexu-indarkeria jasan dutenen arreta zerbitzuaren gaineko protokoloa abiatu zuten

Durango, Abadiño, Berriz eta Etorrioko udalek, Ertzaintzak, Osakidetza eta Durangaldeko Amon-komunazgoak sexu-indarkeria jasaten duten biktimei zuzendu-

tako arreta zerbitzua eraginkorrago egiteko protokoloa abiatu zuten otsailean. Aurten, orain arte, sexu-indarkeriari lotutako 39 kasu kudeatu dituzte zerbitzu soziale-

tan, eta denen iritzia jaso dute zerbitzua zelan hobetu daitekeen lehenengo eskutik jakiteko. Zailtasun guztiak protokoloaren koordinazio mahaira eramaten dira, eta handik dagokion sailera, zerbitzua ahalik eta arinen hobetzeko: "Sexu indarkeriari dagokionez, etorkizunean hobetu beharreko atalen artean, hezkuntzaren eta sistema judizialaren presentzia handitzea daude", protokoloaren kudeatzaileek argitu dutenez.

Sexu indarkeria jasan duenak honako telefonoa eta e-maila ditu zerbitzu sozialekin kontaktuan jartzeko: 94 620 04 92 edo psicologo.mdurango@bizkaia.org.



AZAROAK 25 GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

11:30

Genero indarkeriaren aurkako ibilbidea, Lehendakari Agirre parkean hasi eta udaletxeraino

11:45

Manifestua udaletxean

19:00

San Andres jaien hasiera: jaietan ere genero indarkeriaren aurka

21:30

"Viajeras al tren" antzezlan eskolako aretoan

ELORRIO

‘Martxan’ dokumentala ikusgai, eta informazio mahaia kalean

Munduan zeharreko andre feministen testigantzak batzen dituen lana egunean emango dute Iturrin

El Salvadorreko, Guatemalako eta Euskal Herriko 7 emakume feministek indarkeria matxistari buruzko gogoeta egiten dute *Martxan* dokumentalean. Mugarik Gabe GKE-ak ekoiztutako lana da *Martxan*, eta azaroaren 24an proiektatuko dute Iturri kultur etxean, 19:00etan. Dokumentala amaitu eta gero, mahai-ingurua egingo dute Mugarik Gabeko eta Bilgune Feministako kideekin.

Azaroaren 25ean etxex etxe banatuko duten puntu morea leihoetan edo balkoietan jartzeko deia egin dute udal arduradunek. Goizez eta arratsaldean, indarkeria

sexistaren gaineko informazio mahaia egongo da kalean. Goizean azoka ondoan ipiniko dute postua, 10:30etik 13:30era. Arratsaldean herriko plazan egongo dira, 17:00etatik 19:00etara.

Informazio mahaian Emagin dokumentazio zentroko kideak eta Berdintasun Zerbitzuak parte hartuko dute. Besteak beste, indarkeriari aurre egiteko eta laguntzarako dauden baliabideen gaineko informazioa emango dute, eta baita autodefentsa feministaren gaineko informazioa ere. 19:00etan kontzentrazio isila deitu dute herriko plazan.

Bideo foruma astelehenean
Elorriko Alargunen elkarteak, bere aldetik, bideo foruma antolatuko du azaroaren 28rako: *Agua* izeneko pelikula indiarra proiektatuko dute Iturrin, 17:00etan; *Agua* filma 1938an dago kokatuta. Garai hartan Indiako emakumeak alar-guntzen zirenean, euren karma garbitzeko egoitzetara bidaltzen zituzten, bizi osorako. ■ A.U.

Informazio mahaia goizean azoka ondoan egongo da, eta arratsaldean plazan

Barikuan bertan 19:00etan kontzentrazio isila egingo dute herriko plazan

‘BELDUR BARIK!’ KANPAINA ETA GAZTEEN EKARPENA



Indarkeria matxistagatik egiten diren salaketen % 42 inguru 32 urtetik beherako emakumeek egiten dituzte. Maitane Iribar Eloorrioko berdintasun teknikariaren berbetan, “indarkeria datuak ugarriak eta kezagarriak dira gazteen artean”. Hori dela-eta, parekide-tasunaren arloan behar egiten duten elkarte eta erakundeek gazteen sentsibilizazioan lan egiteko premia ikusi dute, eta ildo horretatik sortu dute *Beldur barik!* kanpaina.

Adierazpen artistikoen bidez, gazteek emakumeenganako indarkeriari buruz eta generoen arteko ezberdintasun egoeraz gogoeta egiteko deia egin dute Beldur Barik! Lehiaketagaz, EAEko Berdintasun Sailak batzen dituen Berdinsareak antolatuko du egitasmoa bigarren urtez. Bideoak, kartelak, olerkiak,

Beldur Barik! Lehiaketan adierazpen artistikoen bitartez indarkeriari aurre egiteko jarrerak landu dituzte

Azaroaren 26an Beldur Barik! Topaketa Irekia egingo dute Donostian, ekimenari amaiera emateko

abestiak... denetarikolanekin parte hartu dute Euskal Herriko gazteek, eta aurkeztutako lanak www.beldurbarik.org webgunean daude ikusgai. Norberak gustoko duenaren aldeko botoa eman dezake, azaroaren 21etik 23ra.

Durungaldeko ikastetxeetan lehiaketan parte hartzeko deialdia

egin dute, eta hainbat talde eta norbanakok egin du bere ekarpena. Ekimenari amaiera emateko, azaroaren 26an Beldur Barik! Topaketa egingo dute Donostian, Emakumeen Etxean. Topaketa irekiak izango dira, eta tailerrak, erakusketak, antzerkia eta lehiaketako sari-banaketa daude, besteak beste, egun osoko egitarauan.


Gazteei begirako lana

Ikasturtean zehar, ikastetxeetan gaia lantzeko hainbat ekimen eta tailer egiten dituzte, eta horien artean Tratu Onen Egitasmoa izenekoa dago. Elorrioko berdintasun teknikariaren esanetan, “helburu garrantzitsuena nerabeengana heltzea da berdintasunezko bikote hartu-emanak bultzatzeko”.

“Bikote hartu-eman orekatu eta afektiboki osasuntsuak, men-

pekotasun bakoak, garatu behar ditugu”. Jeloskortasuna, kontrol jarrerak, broma sexistak... horiek guztiak zergatik ematen diren eta zelan ekin daitekeen hausnartzen dute nerabeek ikastetxeetan saioetan.

Ikastetxeetan egiten diren ekintzekin eta *Beldur barik!* lako ekimenekin “gazteek gaiari buruz berba egitea” lortu gura dutela nabarmendu du Maitane Iribarre: “Indarkeria sexista zergatik ematen den ulertu behar da, desgerraraziko badugu, eta ezinbestekoa da sexu arloan neskek eta mutilek dituzten rolen gainean eta maitasun erromantikoaren ereduaren gainean hausnarketa kritikoa egitea”. Biktimismoa eta beldurra baztertu, eta jarrera kontzienteak eta aktiboak piztea da gakoa, Iribarren ustez. ■ A.U.



GIURETA

Gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina azaroaren 25a dela-eta

Umei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina egingo dute herriko eskolan

Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Iurretako Udalak hile osoan zehar hainbatekimen antolatuko ditu. Juan Orobiogoitia Institutuko DBHko ikasleen artean emakumeenganako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio eta prebentzio kanpaina-gaz hasi dute hileko egitaraua. Gazteen artean indarkeriaren gaia lantzea da azken urteotan kanpaina honek zuten helburua.

Azaroaren 24an, Gizarte Ongizate Sailak bideo foruma antolatuko du, 19:00etan Ibarretxe kultur etxean. *En tierra de hombres* filma proiektatuko dute, eta ekitaldiaren dinamizatzailea Marina Santa Coloma izango da.

Azaroaren 25ean, egun osoan zehar lazo lilak jarriko dituzte,

indarkeria bako bizitza sortzeko konpromiso moduan. 16:30ean umei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina egingo dute eskolan. Maiztegi herri eskolan puntu liladun globoak banatuko dituzte eskola umeen artean. Eguneko egitarauagaz jarraitzeko, 19:00etan, adierazpen instituzionala irakurriko dute Ibarretxe kultur etxean. 20:00etan, Patricia Mac Gil ipuin kontalari uruguaiarrak *Miradas con eco* emanaldia eskainiko du.

Azaroaren 25ean adierazpen instituzionala irakurriko dute, 19:00etan Ibarretxen. Ondoren ipuin kontalari saioa izango da

Azaroaren 28an mestizajeliteraturari buruzko tailerra antolatuko dute. Azaroaren 28an, *Divinas* antzezlanaren taularatuko du Oihulari Klown taldeak, Ibarretxe kultur etxean, arratsaldeko 20:00etan. ■ J.G.

Juan Orobiogoitia institutuko DBHko ikasleen artean sentsibilizazio eta prebentzio kanpaina martxan jarri dute

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna

AZAROAK 24, eguna

19:00etan, **MARTXAN** dokumentalaren emanaldia, ITURRI kultur etxean. Egilea: Mugarik Gabe GKE (gobernuz kanpoko erakundea).

Jarraian mahai ingurua:

Mugimendu Feminista indarkeria matxistaren aurrean,
Mugarik Gabe eta Bilgune Feministako kideak.

AZAROAK 25, barikua

- Egun osoan zehar: **puntu morea** ipini etxeko leihoetan. Postontzian jasoko dituzu aurreko egunetan.
- “Indarkeri sexistarik gabeko gunea: **informazio mahaia** kalean”



Emagin dokumentazio zentroko kideak eta Berdintasun Zerbitzua:
10:30-13:30 Azoka ondoan
17:00-19:00 Herriko plazan

- 19:00etan **KONTZENTRAZIO ISILA**, HERRIKO PLAZAN.

AZAROAK 26, zapatua

Donostiako Emakumeen etxean Beldur Barik Topaketak

Informazio gehiago: www.elorrio.net - Berdintasun saila: 94 658 27 12



Elorriko udala

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

AZAROAK 24 - EGUENA

Gizarte-Ongizate Saila - Ibarretxe kultur etxea
19:00 BIDEO-FORUMA: “EN TIERRA DE HOMBRES”
Dinamizatzailea: Marina Santa Coloma

AZAROAK 25 - BARIKUA

Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna
SENTSIBILIZAZIO KANPAINA ETA ADIERAZPENAREN IRAKURKETA
“Egun osoan zehar lazo lilak jarriko dira, indarkeria gabeko bizitza sortzeko konpromisu gisa”
16:30 Umei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina: Eskolak
19:00 Adierazpen Instituzionalaren Irakurketa
20:00 Ipuin kontalaria: Patricia Mc Gil (Uruguay) “MIRADAS CON ECO”

AZAROAK 26 - ZAPATUA

“BELDUR BARIK TOPAKETA” II. FESTIBALA, DONOSTIA
11:00 Adierazpen artistikoak: eskultura, diseinuak, gogoetak, ilustrazioak, performanceak, animazioak, dantzak, poesia, musika, proiektuak, argazkiak, bideoak, ...

AZAROAK 28 - ASTELEHENA

Ibarretxe kultur etxea
18:15 MESTIZAJE LITERATURARI BURUZKO TAILERRA
Gizarte-Ongizate Saila - Ibarretxe kultur etxea
20:00 ANTZERKIA: “DIVINAS” antzezlanaren (Oihulari Klown Taldea)



AZAROAK

25

BELDUR

EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIARI EZ

BARIK



"Epaiketa ez zen hain gardena izango amaren borroka barik"

Nagore Laffageren hilketan oinarritzen den dokumentala, *Nagore*, eskainiko dute Berrizen; Helena Taberna zuzendariagaz egin dugu berba filmari buruz.

Zerk bultzatu zintuen pelikula hau egitera?

Hilketa gertatzean, 2008ko Sanferminetan, hunkitu egin ninduen. Gero etorri zen mugimendua guztia eta Asun –Nagoreren ama– jarraitu eta moduren batean zinera eramatea hausnartzen hasi nintzen. Asunegaz batu nintzen, eta proiektuan sinestu zuen; atea zabaldu zidan. Jende guztiarentzako zer edo zer egin gura nuen. Batutako materiala artxibatze formatu onena dokumentalazela ondorioztatu nuen. Erritmo indartsua eman nion, istorioa ezagutzen zein ezagutzen ez zutenengan interesa pizteko.

Nagoreren ama, Asun, da filmeko protagonista nagusia...

Dokumentalaren haria da. Tragediak heriotzaren ondorengo bizitza markatzen du, eta Nagore hil aurretik zelakoa zen inork ez daki. Amagaz neska hura deskubritzen joango gara. Ama ez da dokumentaleko haria bakarrik, istorio osoarena baizik; bere borroka barik epaiketa ez zen hain garden izango, eta ez luke hainbesteko babes herritar zein instituzionala edukiko.

Zelakoa izan da senideen lekukotzak biltzeko prozesua?

Lehenengo eta behin errespetua sortzen du. Komunikabideak gertaerekin hain errespetu gutxiokoa diren eta ikuskizuna den orok funtzionatzen duen aroan, guztiz kontrakoa egin behar nuela iruditzen zitzaidan. Ikusleak protagonisten samina ezagutzeko aukera dauka, baina beti errespetu eta eurek esaten dutenetik landuta. Erosotasuna sortu genuen, eta hori emaitza izan da, une oso ederrekin; filmatzean, emozionatu egin nintzen behin baino gehiagotan.

"Hil aurretik Nagore zelakoa zen deskubritzen joango gara, amari esker"

"Uste dut garrantzitsua dela zinea bizitzagaz konektatuta egotea"

Ikuslea istorioan barneratzea duzu helburu...

Auzia burutik apartatu behar izan genuen, gogorregia zelako halako deseraikitze bat modu hotzean egiteko. Zinegile naizen aldetik, gertaeraz gainera, zelan kontatu behar zen ere kontuan hartu nuen. Garrantzitsua da ikusleak parte hartzea, eta bere diskurtsoa osatzen joatea; edizio-mahaitik, ikusleak herri-epaimahai horren parte izatera jolastu gura nuen.

Zelako esperientzia izan da zuretzat, zuzendari legez?

Gogorra da halako gai batlantzea, baina aldi berean pozik eta asebeteta nago. Gainera, abuztutik Nagoreren hiltzaile Jose Diegok kalera irtetzeko baimena dauka, eta une gaitz hauetan familiak fereka legez sentitzen du filma, jende ugari joaten delako ikustera eta epaiketa injustua izan zela erakusten duelako. Bestalde, proiektuaren ondoren hainbat eztabaida ere sortu dira, eta horrek poztzen nau, badirudielako ahaztua dugun gauza dela. Uste dut garrantzitsua dela zinea bizitzagaz konektatuta egotea, guztiok arduratzen gaituzten gaiak tratatuz. ■ M.O.

AZAROAK
25

EKAMUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 25

18:00etan, **NAGORE** filmaren emanaldia, Kultur Etxean. Zuzendaria: Helena Taberna. Iraupena: 77 minutu.



19:30ean, kontzentrazioa Urtiaga plazan **GURE IZARRAK** emakume taldearekin batera. **EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAK EZ!** Ondoren, Beldur Barik Lehiaketarako sari-banaketa egingo da.



AZAROAK 26

11:30etik aurrera, "Beldur Barik" **TOPAKETA**, Donostiako Emakumeen Etxean (Okendo kalea). Autobusak egongo dira Durangotik Donostiara joateko, izena eman udaletxean.



AZAROAK 27



19:30ean, "Gezurrezko printzea" antzezlan, kultur etxean. Euskaraz. Txirene antzerki taldea.



OSASUN GIDA



ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hartz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO
tf: 94 681 22 00

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00



**GOIATZ MURUA
LETURIAGA**

PODOLOGOA
Kiropradia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkera alderazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO
tf: 94 620 36 30

FISIOTERAPIA



Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374



**HIRU
FISIOTERAPIA**

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILIZAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Urreak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

COACHING

elespejodelcoaching.es

OIZ, 6 BEHEA DURANGO
94 603 06 74 - 609 432 948



Isabel Santiago
COACH

EL ESPEJO DEL
COACHINGek zuretzako
gunea zabaldu du hemen,
galdetu ahal izan dezazun.
Lortu gura duzuna eta gaur
egungo zure egoeraren arteko
tartearen zelan txikitu deskubritu
dezazun.

Nire coach lana zuri laguntzea
da, zurekin egotea eta zure
helburua lortzeko bidea
erraztea.

*Metafora:
coachinga orain
zaiden lekutik
heldu gura duzun
lekura zaramatzan
ibilgailua da,
zu zara gidaria
eta coacha
kopilotua da.*



Bidali emaila:

info@elespejodelcoaching.es

Zure zalantzak, galderak
eta kezak argituko ditut
coachingaren ikuspegitik.

Zer jakin gura duzu?

KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA
DIGITOPUNTURA**

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA
Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;

Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak

Zuzendaria, agur t'erdi!

Anbotoren 435 zenbakian 'Urkiola SOS' izeneko artikulua idatzi nuen, zeinetan errakuntza bat zegoen honako hau esaten nuenean: "... Orain urte gutxi, errepide ondoko Landajuela eta antzinako Burdinkurutze (itxi ziren)...". Ziurtatu dut Burdinkurutzeren kasuan ez dela horrela, zabalik baitago.

Gukezagutu genuen Lazpitena, Abadiñoko Udalaren Burdinkurutze herriko taberna, D. Benito Bizkarra historiagile abadeak zioena, egia da antzina itxi zela, baina, aldemeneko Bizkarralegorra Hotelekoek erosi eta Burdinkurutze nekazaltuturismo legez irekita dago, eta martxa onean, dirudienez.

Pozten gara eta, barka, Eli. Horrek ez du kentzen Urkiola ingurua eliz eta herri agintarien sustapen laguntza premian ez dagoenik. Ia denen artean gartzten eta suspertzen duten Durangaldearen eta Euskal Herriaren toki zoragarririk hori!

Jose Luis Lizundia Askondo

Anboto 10 urte

Zorionak, Anboto! Zorionak egungo Anbotori eta 10 urte hauetan, eta lehenago ere, gaur egun eskualdean barneratuta daukagun astekaria gauzatzeko lanean ibili diren pertsona ezagun eta, batez ere, anonimo guztiei.

Pantxi Altube - Elorrio

Ez da batere zuzena

Ez dira ez ahuntzaren gauerdiko eztula, orain dela egun batzuk komunikabide honetan irakurri ahal izan genituen Dani Maeztu jaunaren hitzak. Ez dira ez inongo huskeria, ezta egia ere.

Ez da batere zuzena parlamentuan erantzukizunak dituen politikari batek "trikimailu" izena ematea seriotasun osoz jokatzeko duten alderdien arteko negoziaketari. Are okerragoa da leporatze hori Aralarren ahotik datorrenean, izan ere, komeni zaionean, beste alderdi batzuekin akordioetara heltzen oso ohitua baitago.

Ez du, beraz, zentzu handirik aurkezten ekintzak neurtzeko Aralarreko Maeztu jaunak duen neurri bikoitz horrek. Izan ere, denontzat baita bidezkoa beste alderdi batzuekin akordioetara heltzea, eta halan, eskualderako norberak duen proiektua aurrera ateratzea. Edota, hori EAJ ez diren alderdi guztientzat bakarrik al da bidezkoa? Nik neuk, ezetz uste dut. Demokrazian alderdi orok du eskubide hori.

Maeztu jaunak, EAJ erasotzeko duen desio bizi horri ekinez, Amankomunazgoko presidentearen aukeraketa zalantzan jartzeko ahalegina egiten du. Baina, funtsean, agerian jartzen duen gai bakarra zera da: Izurtza, Mañaria, Atxondo, Zaldibar edota Iurreta bezalako herri txikiak ez daudela legitimatuak beraien ordezkariak Amankomunazgoko presidente aukeratuak izan daitezen.

Eta nire buruari egiten diot, ziur asko aipaturiko herrietako biztanle askok beraien buruari egiten dioten galdera berbera... Zergatik ez, Maeztu jauna? Bada garaia denon artean lan egiteko, bai herri txikiak bai herri handiak, denon artean eskualdeko motore izan behar duen Amankomunazgoa aurrera eramateko. Ordezkarik guztiek baitute amankomunean lan hori aurrera eramateko legitimitateak daudela.

Azkenik, esan beharra dago EAJk beti mantendu izan duela errespeturik handiena beste alderdi batzuetan eman diren barne prozesuen aurrean. Gu, geure az arduratzen gara, beste alderdien etxeetan gertatzen denari buruz aipamenik egin gabe. EAJk demokrazia tresna bezala erabiltzen hartzen ditu bere erabakiak. Agian, Maeztu jaunaren alderdian berak azaldutako eran jokatzeko dute, uste izanez denak garelako horrelakoak. Baina ez, denak ez gara horrelakoak. Batzuek demokrazian errespetua mantentzea zer den badakigu eta ez litzateke txarto egongo guk adierazten dugun errespetua elkarrenganako izatea.

Posible izan liteke, Maeztu jaunak, bere bidai politikoa egin dituen kide berrien aurrean merituak egiteko beharra izatea. Baina, halan balitz, gomendioa egiten diot bere karguei dagokien seriotasun eta errespetuagaz egin ditzan.

Goiztidi Diaz Basterra - EAJ taldearen Bozeramailea Amankomunazgoan

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko azaroaren 18a - 10. urtea - 437 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KIROLAK >

Prototipoen Espainiako Opena irabazi du Igor Urien abadinarrak

Goi mailan aritu da Europako Radical Masterrean parte hartu duen lasterketetan ere



K.Aginako



Aurten hiru autogaz lehiatu da Urien; irudietan hiru ibilgailuetako indartsuena, 470 zaldiko Radical SR8a.

Igor Urien gaztea (16 urte, Abadiño) eskarmentu eta esperientzia zabalagoko gidarien mailan edo haien gainetik ibili da aurten. Iaz bigarren amaitu zuen Prototipoen Espainiako Opena, eta aurten irabazi egin du. Lehenengo lasterketa biak kenduta —arazo teknikoekin ibili zen— gainerako guztiak irabazi ditu. Azkeneko garaipena joan zen asteburuan eskuratu zuen, Nafarroako Zirkuituan. Irabazi eta konbentzitu egin zuen Urienek, txanda batean 30 bat segundoko aldea atera zion-eta bigarren sailkatuari.

Urienek taldearen lana goraipatu du: "Nire errendimendugaz oso gustura nago, baina

taldearen lana ere azpimarratu gura dut. Ondo elkar hartu dugu eta jasotako fruituaren arrazoi nagusienetakoa hori da".

Europar ere distiratsu

Pistan erakutsi duen nagusitasuna ez da oharkabea pasatu, eta denboraldia Radical España taldeagaz hasi bazuen ere, lasterrera Speed Factory Racing taldearen eskaintza ukaezina onartu eta Europako Radical Masterreko hiru lasterketetan parte hartzeko aukera ere izan du; Londres, Portugal eta Valentzia. Hiru zirkuitu horiek taldekide bigaz elkarbanatu ditu; hau da, lasterketa erdi Urienek korri-

tzen zuen eta, box-etik pasatu ondoren, beste erdia bere taldekideak. Londres eta Estorilgo lasterketak lehenengo hamarretan amaitu zituzten, eta Valen-

Etorkizunari begira, eskaintzak aztertzen eta babesle bila dabil

tziakoan, taldekide berri bategaz, harritzeko moduko errendimendua eskaini zuen abadiñarrak. Lasterketari bigarren tokian ekin eta lider zela utzi zion taldekideari; ondoren, biga-

rren proban, autoa 13. tokian jaso eta laugarren posturaino eroatea lortu zuen.

Etorkizunari begira, bide bi aztertzen dabil: Europako Radical Masterra edo Formula 3ko Eurocupa. Eskaintzak baditu, baina babesleak ere behar dituzte. Bitartean Urienek ez du lasaitzeko asmorik: "Orain da kontzentratuen egoteko sasoia. Sekula ez da jakiten nork joko duen atea probak egiteko. Prest nago". Bitartean, abenduan, Automobilismoko Espainiako Federazioaren galan parte hartuko du. ■ J.Derteano.

> Bideoa: www.anboto.org

Mallabiko Mendi Duatloia aurrez ikusi dezakete kirolariek

Lehenengoz antolatu dute Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua eta horko lasterketa bat, azaroaren 27koa, Mallabian hasi eta amaituko da. Parte-hartzaileek 6,2 kilometro egingo dituzte korrika; ondoren, 17 mendi bizikletan, eta amaitzeko beste 6,2 korrika. Nahi duenak, baina, zapatua honetan probatu dezake zirkuitua; 10:00etan ipini dute hitzordua herriko plazan. Dutzak ahalbidetuko dituzte.

Mallabikoa zirkuituko azken aurreko proba da. Oraingoz, gizonetan Luis Maria Urizar dago lider, eta emakumeetan Amaia Luquin. ■ J.D.

Finala jokatzeko urrats bat falta zaio Bereikuari

Datorren eguaztenean Cafés Baqué Pilota Txapelketako finalerdietako partida jokatu du Mikel Bereikua iurretarrak Arrankudiagako Ibarrondoren kontra. Kadeteetako partida 19:00etan hasiko da, Atxondoko pilotalekuan.

Iaz txapelketa oso ona osatuta, aurten final-laurdenera jokatu du bere lehenengo neurketa iurretarrak. Joan zen eguaztenean Garaio nafarren kontra jokatu eta 18-16 irabazi zuen. Berak eraman zuen neurketaren pisua, eta kolpe fresko dagoela erakutsi zuen. 17-9 aurreratu ondoren, Garaio asko hurreratu zitzaion markagailuan, baina ez lehia irabazteko beste. ■ J.D.

Bost garaipen lortu ditu Murgoitio errenkadan

Espainiako Kopako estreinako lasterketa bietan irabazi egin du, eta lider dago

Karrantza, Muskiz, Ermua, Gijón eta Navia. Parte hartu duen azkeneko bost lasterketak irabazi egin ditu Egoitz Murgoitio (Hirumet taldea). Garaipen honi urriaren hasieran Valladoliden lortutakoa gehitu behar zaio. Azkeneko garaipen biak Espai-

niako Kopako estreinakoak izan dira, eta, ondorioz, sailkapenean lider dago orain. Naviako lasterketan, belaunagaz eskulekua jo eta hankako artikulazio hura handitu zitzaion arren, 15 segundoko atera zizkion bigarrenari.

Errepideko txirrindularitza

Bestalde, errepideko Bizkaiko gazteen selekzioak Belgikako Superprestigio proba batean parte hartuko du igandean eta txirrindulari bi eskualdekoak dira: Xabier Goikoetxea eta Aritz Hernandez. ■ J.D.

Belgikan lehenengo hamarren artean sartzea du helburu



Murgoitio, Kopako liderrari dagokion elastiko horiagaz.

Diabeteari eta kirolari buruzko lana ikusgai

Jon Karro triatleta abadiñarren esperientzia oinarrituta, diabetea eta kirola bateragarri direla erakustea gura duen dokumental laburra (12 minutu, gaztelera) aurkeztuko dute azaroaren 24ko eguenean, 19:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Sarre-ra doakoa da.

Lehenengo Jon Karrok sarrera hitzaldia eskainiko du, Itziar Landajo endokrinologoagaz batera. Dokumentalaren ondoren, diabetikoek jan ditzaizketen gozogintzako jakiak probatu ahalko dira, Luz Tato sukaldariaren eskutik. ■ J.D.

Iurretakoren gosea eta Berrizen egarria derbian

Iurretako igoera postuan kokatu daiteke irabaziz gero; Berrizek nahi eta nahi ez puntuak behar ditu sailkapeneko zulotik irteteko



Zalduaren kontrako derbia irabazita hasi zuen bolada ona Iurretakoak. Kepa Aginako

Zapatuan derbia jokatu dute Iurretakok eta Berrizek. Lehenengoak behetik gorako bidea egiten dabilta eta garaipen gosea dute, igoera postuetatik puntu bakarrera daudelako. Berriz, aldiz, azkeneko postuan dago, eta sei puntura du salbazioa. Gosea baino gehitxoago da hauen beharra; puntu egarriz dira, zulotik irteteko.

Iurretako bolada onean dago. Liga garaipen bigaz hasi ondoren, hurrengo jardunaldietan ibilbide gorabeheratsua izan zuten, harik eta oreka aurkitu zuten arte. Azkeneko lau partidetatik hiru irabazi dituzte —horietako bat Zalduaren kontrako derbia 2-1—, eta Otxarkoagaren kontrako porrota ere ez

Iurretakok azken lau partidetatik hiru irabazi ditu, eta sasoian dago

Berrizek oso gol gutxi sartu du; lau besterik ez zortzi partidatan

zen merezitakoa izan; penalti bat ere huts egin zuten. Igoera postutik puntu bakarrera dauden arren, oraindik mailari eusteko adina puntu batzea dute helburu nagusi. Dena dela, igoera postuetan sartzeko aukera ona dute, asteburuan Loiu liderrak eta Retuerto bigarrenak elkarren kontra jokatu dute-eta.

Berrizek orain arteko garaipen bakarra Zalduaren kontra lortu zuen ligako bigarren jardunaldian. Harrezkero puntu bakarra bakarrik batu ahal izan dute: Ugaoren kontrako berdinketa etxean. Golak sartzeari izugarri kostatzen ari zaie berriztarrei; lau bakarrik daramatza zortzi jardunalditan. Jaso, aldiz, 15 jaso dituzte. ■ J.D.

Normaltasunez joan da Zabalar atzamar bitan eginiko operazioa

Ibai Zabala Asegarceko pilotari-ri ebakuntza egin zioten, joan zen barikuan, eskumako eskuko atzamar bitan (hatz luzean eta erakuslean) ez zuelako odol zirkulaziorik. Hile bi beharko ditu errekuaratzeko. Animatek duten guztiekiko esker ona erakutsi du bere Facebook orrian: "Eskerrik asko denoi, bihotz-bihotzez. Horrelakoak gertatzen dira kirolaren munduan, eta aurre egiten jakin behar da. Hala ere, ez desistatu, konturatu orduko zuriz jantzita ikusiko nauzue-eta". Animoak eman zizkionetako bat Aritz Laskurain pilotaria da: "Animo Ibai! Laister zara berriz gerra ematen. Eutsi goiari". ■ J.D.

Golegilerik onenak Abadiñon eta Ezkurdin

Jokin Idirin eta Xabier Bilbaoren golek lagunduta lider dira talde biak futbole

Entrenatzaileak talde lana azpimarratu zaleak dira. Sistema zuzen ezarri eta asimilatzen bada, sarriago sortzen dira gol aukerak eta gutxiagotan helzen dira arerioak norbere atera. Hala ere, gol aukerak sartzeari ezinbestekoa da partidak irabazteko, eta zeregin horretan izen bi azpimarratu behar dira

Bigarren eta hirugarren erregionaleko pitxitxiak dira jokalar biak

Abadiño eta Ezkurdi futbol taldeetan: Jokin Idirin eta Xabier Bilbao. Idirinek zazpi gol sartu ditu beste hainbeste jardunalditan, eta Abadiño gaur egun bigarren erregionaleko liderra da. Mailako golegilerik onenen artean dago Kerman González ere, lau golekin.

Bilbaok Idirinen marka berdina du; zazpi partidatan zazpi gol sartzeari lortu du, eta bere taldea hirugarren erregionaleko liderra da.

Ezkurdik atsedean hartuko du asteburu honetan, eta Abadiñok Gernika laugarren sailkatua hartuko du Astolan. ■ J.D.

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Entrenatzaileen formazioa

Lehenengo eta behin, ZORIONAK ANBOTO! Ezin izan nintzen egon Plateruenean 10. urteurreuna ospatzen baina, benetan pozten naiz familia handi honen partaide izateaz. 20. urteurrenean egotea espero dut.

Oraingoan ez noa ACBko talde handiei buruz hitz egitera. Oraingoan gure inguruan saskibaloian jokatzen hasi diren ume eta gazteei buruz arituko naiz.

Durungaldean, eta batez ere Durangon, gero eta neska mutiko gehiago hasten dira urtero saskibaloian. Zein altxor ederra! Durangon bertan 9 urtetik 14 urtera bitarteko ia 40 talde ditugu eskola, ikastetxe, ikastola eta klub ezberdinetan. Eta hori horrela izateko eta guzti honek aurrera egin dezan, ezin bestekoak dira talde horiek entrenatzen arituko diren entrenatzaileak. Hauek barik ezin aurrera egin.

Hauen lana, ezinbestekoa eta eskertzekoa izanik, badaukagu besteok, Klubetako eta eskoletako arduradunok, beste lan garrantzitsu bat egin beharra: Entrenatzaile hauen formakuntza teknikoan laguntzea eta sakontzea. Badakit zaila dela eta askok denborarik ez daukatela, edo eta, daukaten apurra entrenatzen ematen dutela, baina, besteok, formakuntza hori eskuragarri eta erraztasun osoz eduki dezaten lan egin behar dugu.

Entrenatzaile gazte horiek "mimatzen" baditugu eta gainera beraien maila hobetzen laguntzen badugu, gure kirolaren etorkizuna Durungaldean bermatuta izango dugu urte askotarako.

Aldez aurretik, eskerrik asko denoi!

Uriartek irabazi du Euskadiko Txapelketa

Tornosolon jokatutako finalean goitik behera nagusitu zitzaion Mikel Gonzalezi (40-22)

Rober Uriarte abadiñarrak buruz buruko txapelketa biribila osatu du trinketean. Finalerdietan 40-27 kanporatu zuen Mikel Rafael arabarra, eta finalean ere nagusitasun osoz (40-22) gailendu zitzaion Mikel Gonzalezi.

Uriarte oso inspiratuta ibili bazen, Gonzalezek ez zuen bere mailarik eman. Partida hasiera orekatuaren ondoren, abadiñarra aldea hartzen hasi zen apurka-apurka, eta biga-

rrer zatian eroso aritu zen kan txan. Sakez gehiago asmatu zuen, eta pilota sareratzen ere abilago ibili zen.

Antxia hirugarren

Hirugarren eta laugarren posturako partida luzeagoa eta orekatuagoa izan zen, eta Ander Antxiak irabazi zion Mikel Rafalei (40-30). Oro har, Antxia gehiago izan zen, baina Rafalek trinketean etorkizuna baduela erakutsi zuen. ■ J.D.



Finalerdietan zein finalean nagusi agertu da Uriarte.

> anboto astekariak Eusko Labelekin
batera **saski bat** zozketatuko du bi hilean behin



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



ZOZKETA

Eusko Labeleko produktuekin egindako
zure errezeta gozoenak bialdu

BIDALI ERREZETAK:

**astekaria@anboto.org edo Anboto Astekaria -
Bixente Kapanaga, 9 • 48215 Iurreta**

- * Bialdutako errezeta guztiek izango dute opari bat
- * Hurrengo zozketa urtarrilean: bialdu zure errezetak abenduaren 28a baino lehen
- * Euskaraz idatzitako errezetak bakarrik onartuko ditugu

Bostetik bost irabazita, bigarren fasea eskura du Elorriok errugbian

Hiru talde sailkatuko dira, eta hiru lehiaren faltan 10 puntuko aldea dute Rivagorekiko



Garaipen handiak lortzen dabilta elorriarrak; esaterako, Hernani 57-0 menderatu zuten.

Elorrio Rugby Taldea-Parra Taberna euskal ligako multzoko lider dago lehenengo fasea amaitzeko hiru jardunaldiren faltan. Taldearen orain arteko ibilbideak ez du orbanik; jokaturako bost partidak irabazi dituzte, eta horietako lautan bonus puntua batu dute lau entsegu bai-

Joan zen astean 12-27 irabazi zuten Rivago taldearen kontra

no gehiago egitearren. Hori guztia lortzeko errezetak, gainera, osagai simple baina eraginkorrak ditu, Urdin Ugarte entrenatzailearen esanetan: "Konpromisoa eta astetik atera norbere maila hobetzeko prestutasuna". Horri, entrenatzaileak ezarri duen disziplina gehitu behar zaio; giro ona mantenduz,

baina exijitu behar denean exijituz, taldeari ahal izan duenik eta zukurik gehien ateratzeko.

Elorriok igoera fasea jokatu du deskalabrorik ezean, eta Ugartek une hori heltzeko "desiatzen" dagoela onartu du: "Orduan ikusiko dugu taldearen benetako maila. Era berean, gure hutsuneak zuzentzeko ere balioko digu. Mota horretako partidak pilotzea inportantea da esperientzia hartzeko, eta une klabeetan zelan jokatu behar den ikasteko".

"Konpromisoa eta lanerako prestutasuna ditu taldeak"

Bitartean, zapatu honetan, 16:00etan, Independiente B taldea hartuko dute etxean. Ondoren, lehenengo fasea amaitu bitartean geratuko zaizkien neurketa biak sailkapenean orpoz orpo dituzten Universidad Bilbao eta R.C. Rioja taldeen kontrakoak izango dira. Beraz, sailkapena eskura duten arren, elorriarrek, badaezpada, ondo egingo lukete hurrengo fasera: txartela asteburu honetan etxean segurtatuko balute. ■ J.D.

Judoaren jaia Uematsu anaiekin

Portugaleteko Uematsu anaiek stage-a eskaini zuten pilotalekuan



Durango Judo

Durangoko Ezkurdi Jai-Alain judoa izan zen protagonista nagusi joan zen asteburuan. Durango Judo Taldeak gonbidatuta, Uematsu anaiek bertaratu zirenen judo gosea asetu zuten.

Antolatzaileek judoka bien kalitatea azpimarratu dute, "baina ez irakatsi zutenarengatik bakarrik, baita bertaratu zirenenenganako erakutsi zuten hurbiltasunagatik ere". Horrez gainera, ez zuten arazorik izan bertaratutakoen dudak argitzeko: "Oinarrizko teknikak hain modu argigarrian eman dituzte, esperientzia dugunak ere hainbat ikasbide atera ditugula". Kiyoshi Uematsu Londresko Joko Olimpikoetan sartzeko lehiatzen dabil gaur egun. ■ J.D.

Agenda

PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

Mendinueta-Jaka

Binaka:

Ezkurdia-Diez /

Larrañaga-Uzkudun

Azaroaren 24an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Apurtu Arte

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

GOREN MAILA

Iurretako - Berriz

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Gernika

Zapatuan, 15:30ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeno - Moraza B

Domekan, 17:30ean, Tabiran

Zaldia B - Amorebieta

Zapatuan, 16:30ean,

Solobarrian

ARETO FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Sasikoa - Buruntza

Domekan, 12:00etan, Landakon

Kurutziaga - Kukulaga

Zapatuan, 19:30ean, Landakon

GOREN MAILA

Presion Break-Erandio

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko udal kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño Gaztetxe -

Sumi Muguru

Zapatuan, 15:10ean,

Elorrioko udal kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibeltz - Kukuyaga B

Zapatuan, 16:00etan,

Landako kiroldegian

Gu Lagunak - Freunde B

Zapatua, 17:30ean,

Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Bilbo B

Domekan, 10:30ean,

Landako kiroldegian

SASKIBALOIA

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Anbotopeko - Deusto

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

Tabirako Baqué - Leioa

Zapatuan, 16:45ean,

Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Zaldia - Otxarkoaga

Zapatuan, 16:30ean,

Zaldibarko udal kiroldegian

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

DRT B - Unl. Bilbao

Zapatuan, 16:00etan,

Arripausuetan

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Hurrengo eraikuntza

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

Izarrak ez daude Hollywood-en bakarrik.

Flandesen daude Michelin izarrekin sarituriko jatetxe gehien, metro koadroko. Horregatik, baztertu ezineko norakoa da gastronomia aldetik

flandes.net



Zergatik aukeratu dena eduki ahal baduzu? Zoaz Flandesera eta ez duzu denbora-faltarik izango. Amberes, Brusela, Brujas, Gante, Lovaina, Malinas... Bizi esperientzia-kontzentrazio handiena 50 km-ko erradioan. **Flandes, 6 errealitate toki bakarrean.**



MODA



BIZITZEKO



ARKITEKTURA

FLANDES Abenduko zubia

Hegazkina Bilbotik. 5 egun – 4 gau. Hotelak****. Barne daude gosariak, bisita gidatuak Gante, Brujas, Brusela, Amberes... hirietara eta Belgikako 8 garagardo-espezialitate dastatzeko aukera.

850€

Gutxienez 6ko taldea osatu behar da. Bestelakorik esan ezean, pertsonako oinarrizko prezioak logela bikoitzean. Kontsultatu datak, irteera-aireportuak eta antolatzaile(ar)en gainerako baldintzak. Kudeaketa-gastuak 8 €. Plaza kopuru mugatua.



www.viajeseroski.es

EDERTASUN GIDA

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari berok depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa
Nerea Mallabiabarrena • Merche Garcia
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarak antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

synthesis

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango



- Amaia Salazar
- Nukleo ileapaindegia dauka Elorrión

Ilea erortzen denean

Amaia Salazarrek udazkeneko ohiko arazo bati buruz egin digu berba gaurkoan: ilea erortzeaz. Arazoa tratatzeko aholkuak ere eman dizkigu.

Udazkenean sufritzen al du bereziki gure ileak?

Udazkena ailegatu da, eta, hostoak legez, gure ilea jausten hasi da; udaberrian ere gertatu daiteke. Erorketa hori aldi batekoa da, baina horrek ez du esan gura ez denik zaindu behar. Gainera, horrek erorketa androgenetikoak baino soluzio hobea izaten du, eta tratamenduak oso eraginkorrak izaten dira.

Zelakoak dira aipatu dituzun tratamendu horiek?

Normalean, tratamendu horiek hiru produktuz osatuta daude: arazoa barnetik ateratzeko pastillak, hurrengo pausorako buruazala prestatzeko xanpu bereziak eta osagai aktibodun anpoilak. Xanpua mentolatua izan ohi da, eta odolaren irrigazioa hobetzen laguntzen du. Bestalde, tratamenduko pausoren bat aurreztu gura izanez gero, lehenengoa litzateke kendu beharrekoa.

Ba al dago kontutan hartzeko beste elementurik?

Udazkena izateari urduritasuna eta dieta txarra gehitzen badizkiogu, arazoa askoz handiagoa bihurtu daiteke, eta konpontzea, aldiz, askoz ere gaitzagoa.

Beraz, erorketaren kontuari garrantzia eman beharko diogu...

Bai. Gainera, ez da komeni arazo honetaz paso egitea. Baliteke geroago aurre egin nahi izatearren beranduegi izatea.

ILEAPAINDEGIAK

iunik ileapaindegia

astelehenetik
asteazkenara
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behe • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garaje aeta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
- BARRENKALE: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.
- ANDRA MARI: 150 m2. 5 logela,2 komun, egongela eta sukaldea. Leku onean kokatua.
- Taberna salgai. 100m2. Instalazio guztiekin. Prezioa negoziagarria da.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Zoragarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

TXALETAK-BASERRIAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserría, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baserría salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzola-ko kobetatik gertu.
- Baserría salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

MALLABIA

- TRABAKUA: Baserría. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- SEI ADOSATU ERAIKITZEN. 298.000€-tik aurrera.
- Guztiz berriztuta dagoen baserría. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- MENDIOLA: Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeako.Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua – txokoa. Lorategia barbakoarekin. Leku onean kokatua.

GARAI

- Adosatua salgai. Estreinatzeako. Leku ezin hobean kokatuta.

LUR SAILAK SALGAI

IURRETA

- 2.000 m2-ko lursaila salgai.Leku zoragarria. Sarbide ona.
- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera.

LEMOA

- 2.800 m2 eta 2.700 m2-ko lursailak eraikitzeiko baimenarekin. Prezio interesgarria.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu.Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeiko aukerarekin.



AGENCIA INMOBILIARIA

Fernando Uribe

Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
- OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
- ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeako.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- ARRILUZZA: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta komuna. Ganbara guztiz egokitua eta garaje bikoitza.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
